



PSOE-EAJ akordioa

Beste 30 urte muskiztarrei osasuna ebasten **PETRONOR**



- **Amaia Lasa**, idazlea: «Gure mitoen esklabo gara»
- **Errepresioa frankismoan** Emakume izateagatik birritan zigortuak
- **Euskaldunak New Yorken** Aukera baten bila
- **Musika** Estiloak ez du behartzen ingelesez kantatzera
- **Net Hurbil** Ekologismoan satorrak dabilta azpilanean
- **Erraldoien Txokoa** Euskal kulturaren erreferentea itxi dute Iruñean

Karlos Zurutuza
Iraketik

الله اكبر

Abu Ghurayb
Al Basrah
Al Basrah al Qadisiyah
Baghdad
An Kirkuk
Arbil
Al Faw
As Sulaymaniyah
Al Havy
Zakho
Al Hillah
Mosul
Al Mawsil al Jadid
Ash Shatrah

GREETINGS
FROM
IRAQ

Karlos Zurutuza kazetaria
Iraken izango da
otsailaren 7tik aurrera.

AEBetako tropak etxera itzuliko dira
aurten, Iraken gerra hasi zutela zortzi
urte martxoan beteko direnean.

Ustezko trantsizio une hau gertutik
bizi ahal izango dugu Zurutuzaren
blogean, egunero, eta hilabetez.

argia.com/irak

 **argia**

Otsailaren 15etik aurrera,
zenbait hilabetez,
Iker Blas politologoa
Hegoamerikan ibiliko da.



Bertan ikusi, bizi eta
ezagututakoak jarraitzeko
aukera izango dugu
Iparra Hegoan bere blogean.

 **argia**

argia.com/iparra-hegoan



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko otsailaren 13a, 2.264. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Eider Alkorta:** «Murtziarra banintz gehiago bustiko nintzateke». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Emakumeak eta frankismoaren errepresioa.** Zigorra zigorraren gainean. ANDER LEON / 5

Pertsonaia

- **Amara Lasa:** «Libertatea oso ederra da baina oso gogorra». UXUE ALBERDI / 10

Gaiak

- **New Yorkeko diaspora.** Lau kontakizun istorioen hiritik. IGOR SUSAETA / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Balioa baliogabetu. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Oraingoan bai:** aro berria! PAKO SUDUPE / 21
- **Hiruko txikian** Aspaldiko. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Gudan gaude.** EKAI TXAPARTEGI / 22
- **Txandan** Agertzeaz. ANDONI MUJICA / 22
- **Zirtak** Gezurtiaren estrategia. ANGEL ERRO / 23

Erdiko kaiera

- **Txokorik gabe,** hutsune erraldoia Iruñeko euskal kulturarentzat. REYES ILINTXETA / 25
- **Iaz disko asko...** eta erdaraz (zenbait burutazio ingelesez kantatzeko hautuaz). GORKA BEREZIARTUA / 28
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** ESTITXU EIZAGIRRE / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Edorta Arostegi eta Sara Ibañez, Meatzaldea Bizirik:** “Absurdia da pentsatzea Petronorrek inguruko biztanleen osasunari ez diola eragingo”. UNAI BREA / 39
- **Zer transferentzia egin da EAEra enplegu politikan?** DANIEL UDALAITZ / 42
- **Igone Lamarain, Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea:** “Aurrekoaren bidetik dabil Jaurlaritza... Igoal, orain, lotsa barik”. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Nork ordainduta mozorrotu zen ekologistaz polizia? PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **III. Errepublikak.** JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL / 50



“Murtziarra banintz gehiago bustiko nintzateke”

Eider Alkorta I
Ikuspegiko politologoa

Elkarrizketa bukatu eta su-etena
aldarrikatu zuten.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Iñigo Azkona

Politologo eta soziologoak erakunde publikoei aurpegia zuritzeko zaudete?

Subentzioen menpe lan egiteak gure sinesgarritasuna kolokan jarri dezake, baina kritikak kritika, emaitzak ez dira faltsuak izaten. Emaitzen interpretazioan dago gakoa. Zergatik ez dituzte kazetariak emaitzak benetan aztertu eta interpretatzen?

Egiak, gezurrak eta zenbakiak daudelako, agian?

Nork erabakitzen du erdia ados edo erdia kontra dagoela esatea? Gauza bera da “laurdena” ala “laurdena bakarrik”? Dena manipulatuta daiteke eta zenbakiak ere bai.

Eguraldi iragarleak baino okerragoak zarete. Beti duzue arrazoi.

Iraganekoak dira iragarpen errazenak. Zer esanik ez bizi dugun testuinguru politikoan. Murtziarra banintz gehiago bustiko nintzateke.

Politologo errespetagarri batek ez al zuen Suitza bezain neutroa izan behar?

Politikaria eta politologoa bi ofizio desberdin dira. Nire iritzi politikoak ez luke nire balorazioa baldintzatu behar. Denok uste dugu objektiboak garela, baina denok dakigu nondik egiten dugun herren.

Egungo telebistako tertulietan auto-zentsura da herrenik egin ezin duena.

Etengabe zure burua justifikatzen ibili behar duzu eta zentsura zorrotzagoa da barrukoak

kanpokoa baino. Zuk zurea esaten baduzu besteena entzuteko prest zaudelako da.

Esadazu ba zer maila daukaten gure politikariek.

Eskasa. Tristeia da baina gaur egun ez da askorik behar legebiltzarkide izateko. Arrazoi zuen Zapaterok edozein izan zitekeela presidente esan zuenean. Okerrena da bakoitzak merezi dugun gobernu daukagula.

“Tristeia” esan duzunean etorkinei buruz hasiko zinela pentsatu dut.

Zergatik lotzen ditugu etorkinak eta pobrezia? Cristiano Ronaldo ez al da etorkina? Zergatik ez dauzkagu etorkintzat gure amona zaintzen duen kolonbiarra edo zure etxea garbitzen duen filipinarra?

Baina euskaldunak ez al ginen aurrerakoietan aurrerakoienak?

2004ko datuetan *la crème de la crème* ginen, baina krisiaren eta immigrazioaren gorakadaren ostean... Ondorioa: lanpostu on batek patrika bapo berotzen dizunean askoz errazagoa da aurrerakoia izatea.

Badakizu, herri honetan, dena “gatazka” denez...

Politikari eta alderdi batzuk ez ditut sekula gai sozialei buruz hizketan entzun. Dakidan gauza bakarra da euren burua ezkertiarizat duten alderdi eta jende askok ez dutela filtroa pasatzen, eta gatazka bukatzean beste gatazka batzuei buruz hitz egin beharko dela. ■

Emakumeak eta frankismoaren errepresioa

Zigorra zigorraren gainean

1936ko uztaileko matxinada militarra lehen garaipen izpiak ikusten hasi zenetik, ondo zehaztu zuten zein izango zen, hortik aurrera, “Espainia Berria” emakumeek bete beharreko papera: etxeko erregina, seme-alaben hezitzailea eta senarraren zaintzailea. Aktiboki edo pasiboki orden berriaren aurka azaldu zirenek, II. Errepublikaren aldeko ekintzetan parte hartu zutenek edota momentu txar batean leku desegoki batean zeudenek errepresio gogorra jasan zuten, askotan gizonena bezain bortitza. Hala ere, emakumeen errepresioak ezaugarri bereziak zituen.

ANDER LEON

EMAKUMEEN ESPETXEEN INGURUAN ikerketa ugari egin dira azken urteetan. Ricard Vinyes, Fernando Hernandez, Giuliana di Febo eta gure artean, besteak beste, Xabier Basterretxea, Arantza Ugarte, Maria Gonzalez edo Eduardo Barinaga aritu izan dira horretan. Bereziki aipagarria da EHUKo Kriminologia Institutuan, Emakundek lagunduta, burutu den ikerketa multidisziplinarra. Autore hauek idatzitako lanak, dokumental batzuk eta pelikularen bat edo beste oso lagungarriak izan dira errealitate hori ezagutarazteko. Urte askotan ezkutuan egon dira testigantza horiek. Sarritan

Gerra Zibilean frankistek ilea moztutako emakume errepublikarrak.

emakumeen isiltasunari leporatu izan zaio, baina beraiek argi dute: “Guk beti hitz egin dugu, baina inork ez zigun entzuten”.

Leporatutako delituak

Errepresio frankistaren ondorioak jasateko, emakumea izanez gero, ez zen beharrezkoa espetxeratua edo atxilotua izatea. Asko izan ziren, esate baterako, lan egiteko aukerarik izan ez zuten alargunak, miserian bizitzera kondenatuak “gorri” baten senideak izateagatik. Beste askok familia ibiltariak osatu zituzten, Espainiako geografian zehar mugituz senarra, semea edo aitaren atzetik hauen ibilbide penitentiarioaren segizioa egiten. Kasu haue-





E. PINEIRO

Saturrarango kartzelako emakumeak, argazkirako posatzen.

tan, maiz duintasunik gabeko lanpostuak (prostituzioa barne) bete behar izan zituzten senideei espetxe barruan behar zutena eman ahal izateko. Emakumeak eta bakarrik emakumeak izan ziren kanpoko laguntza hau aurrera eramane zutenak. Alderantzizko kasurik ez da ezagutzen. Emakume presoek kasuan askatasun faltari bakardadea gehitu behar zaio. “Espetxe barruan gure burua baino ez genuen”, esan ohi dute.

Atxilotutakoaren artean, leporatutako delituari erreparatzen badiogu bi multzo handi bereiz ditzakegu. Lehenengoan, araudi frankistaren arabera, lege haustura egin zutenak zeuden. Hauek, gizonezkoak bezala, errepublikaren alde edo faxismoaren kontrako borrokan nabarmendutako militanteak ziren: abertzaleak, komunistak, sozialistak, anarkistak, feministak... Borroka egin zuten eta beraiei konpromiso mailagatik, bazekiten errepresio gogorra jasotzeko aukera handiak zituztela. Beraiei ideologiarekiko koherentzia zetorkien patu iluna onartzen zuten eta espetxe barruan, modu batez edo bestez, borrokarekin segitzeko asmoa azaltzen zuten.

Errepresio zuzenaren biktimen bigarren taldea askoz zabalagoa eta anitzagoa izan zen. Delitu zehatzik ez zitzaizien lepo-

ratzen, “ondoan” egotea baizik. Errepublikazale baten emaztea, alaba edo ama izatea nahikoa zen zorigaitzoko talde honetako kidea izateko. Egoera honen inguruko testigantzak ugariak dira. Saturrarango kartzelako emakume baten esaldiak argi uzten du hori: “nola nire senarra ez zuten aurkitu, ni hartu ninduten”, edo aurrerago ikusiko dugun Larragako nerabe baten kasua, aitarekin batera atxilotua. Errepresio mota honen helburua, beraiei emazte edo alaben bidez, ihes egindako gizonak zigortzea zen, logika frankista erabiliz, beraiei “propietatea” erasoz.

Zigorrak

Frankismoak, hasiera-hasieratik garbi utzi zuen zein izango zen beraiei justizia sistema. Jimeno Jurio historialari nafarrak garbiketa politikoa terminoa proposatu zuen egindako errepresioa izendatzeko. II. Errepublikan indarrean jarritako erreforma guztiak deuseztatuak izan ziren eta lege berezi batzuen bidez, eredu berria, erabat punitiboa, martxan jarri zuten. Gauzak horrela, gaizkilea zuzentzeko asmoa aplikatzeari utzi zioten. Errudunek argi eta garbi jakin behar zuten zein zen haien etorkizuna. “Irabazleak eta galtzaileak egongo dira”. “Beraiei akatsak odolez ordainduko

Zigor asko espetxeko hormetatik kanpo burutu ziren. Hauetako batzuk emakumeei bakarrik ezartzen zitzaizkien: ilea moztea, rizino olioak edanaraztea, bortxaketak...



IZARREN ARGIA / FLICKR



IZARREN ARGIA / FLICKR



IZARREN ARGIA / FLICKR

Gerra Zibilean emakumeek jasandako errepresioaz hainbat pelikula egin dira azkenaldian. Euskaraz, Saturrarango kasua jorratu dute Mikel Ruedak zuzendutako *Izarren Argia*-k (goiko irudietan eszena batzuk), eta *Debekatua dago oroitzea*, Josu Martinezen eta Txaber Larreategiren dokumentalak.

dituzte”. Horiek ziren hasierako gerraondoan irabazleek idazten zituzten esaldiak. Helburua lortu ahal izateko, heriotza zigorra erabiltzeko, ez zegoen inolako oztopo moralik. Victor Mañu apaiz nafarrak hala adierazi zuen: “Bosgarren agindua, ‘Ez duzu hilko’ da, baina salbuespenak daude”.

Emakumeen artean fusilamenduak ez ziren oso gertaera ohikoak eta egin zirenei ez zitzairen inolako publizitaterik eman. Ezagunak dira, hala ere “13 Arrosen” hilketak edo Guillenako 17ak. Haurdun zeuden kondenatutakoen kasuetan, emakumea erditu arte itxaroten zen fusilatzeke. Haurra Estatuak zainduko zuen, ama akabatu eta gero.

Espetxea zen, beraz, emakumeentzako zigorrak ohikoena. Aurretik zeuden kartzelak azkar bete ziren tropa frankistek harrapatutako preso kopuru handia zela-eta. Espainia Berria edozein eraikin egokitzen hasi zen prisi funtzioa bete zezan. Biltegiak, zezen plazak, komenturak, zine-aretoak... Edozein tokik balio zuen. Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko mugan, Ondarroa eta Mutriku artean, garai batean luxuzko hotela, geroago seminarioa eta azkenean koartela izan zen

eraikin multzoa, Estatuak emakumeen kartzela handiena bihurtu zen: Saturrarango Espetxe Zentrala. Bertan, eta garaiazen arabera, batez beste 2.000 emakume inguru giltzaperatuak egon ziren 1938tik 1944ra arte.

Kartzela horretaz gain, Euskal Herrian Zornotzakoa, Bilbokoa, Gasteizkoa eta Iruñeko bi izan dira emakumeentzako espetxe bezala dokumentatu direnak. Gauza jakina da, emakume asko beste atxiloteta zentro edo espetxeetan giltzapeturik egon zirela, baina arestian aipatutakoak dira soilik emakumeentzat atondutako kartzelak. Espetxe hauen ezaugarri nagusienetakoa mojen presentzia izan zen. Errepublikak garaian debekaturik egon ondoren, zaintza lanak egitera itzuli ziren, baina ez horrenbeste aurretik egondako prisiotara baizik eta komentuetan edo seminarioetan sortutako berrietara, Saturraranera edo Zornotzara adibidez. Horrek, kontrol politikoaz gain, kontrol ideologikoa eta morala bermatzen zuen, emakume “galdu” hauek gertutik jarraitu ahal izateko. Onura handia lortzen zuten bai Estatuak baita Elizak ere. Frankistek eraikin berriak eta eskulan merkea lortzen zuten. Erakunde

Aurkezlea
BEÑAT GOITIA

2. KANPORAKETA

Otsailak 18, ostirala, 20:30ean afaria, 10:30ean saioa

Asier Otamendi
Andere Arriolabengoa
Serapio Lopez
Iker Agirre
Amaia Lasaga
Maialen Sz. de Okariz

OIONgo Azkenak Elkartean

argia



katolikoek Jaungoikoaren bidera erakartzeko emakume galduen multzo handia. Guztiak irabazle.

Kartzeletako bizimodu gogorra ahaztu gabe, zigor asko espetxeko hormetatik kanpo burutu ziren. Hauetako batzuk emakumei bakarrik ezartzen zitzaizkien. Sexu bereizketa horrek eta ekintza horien maiztasunak zigor berezien bat-batekotasunaren teoria baztertzen dute. Goitik planifikatutako eta agindutako mendekuak izan ziren.

Garaiko emakumeen ikur femeninoena ile luzea zen, gizonengandik bereizten zituena eta, askotan, edertasunaren seinalea zena. Zigor ohikoenetakoa ilea mozkea zen, burusoiltzea. Hau kentzea emakume kondizioa ezabatzea zen, ia biluztea. Gainera denboran luze irauten zuen iraina zen, ileak aurreko egoera berreskuratu arte hilabeteak behar baitzituen. Batzuetan, adar moduko bi xerlo uzten zitzaizkien demonio itxura har zezaten, “gorria-infernua” lotura eginez. Gainera, askotan, ile mozketak hauek publikoak ziren; adibidez, 1936ko irailean, tropa frankistek Donostia hartu ostean Amarako Easo plazan burutu zirenak.

Higienearen ukapena izan zen bigarren zigor motaren helburua. Rizino olioak edanaraztearen ondorioek zikinkeria bikoitza eraku-

tsi nahi izan zuten: alde batetik gorputzarena eta bestetik arimarena. Espainia Berriko emakume eredu-garriaren antitesia. Isabel Katolikoa edo Jesusen Teresaren garbitasunetik ezin urrutiago kokatuak. Ikerlari batzuen arabera, ekintza hauek, barruko demonioak ateratzearen ideiarekin lotzen dute, berriro infernua eta marxismoaren ideiak elkartzuz.

Emakume gehienek ez zituzten ezkutuan pairatzen aipatutako zigorrak. Duintasunaren ukapenean kokatu ahal ditugu desfile publikoak, ile mozketak edo rizino olioak edan eta gero-ko erakustaldi publikoak herriko plazetan. Erriberako herrietan jasotako testigantzetan gertaera horien inguruko aipamen ugari daude. Helburu bikoitza zuten. Alde batetik

emakumeak eta beraien senideak umiliatzea eta bestetik herritar neutralak edo zehaztugabeak izutzea, balizko etsaiei ikusaraztea zer gerta zekiekeen erregimenaren alde ez zeudenei.

Bortxaketek atal berezia merezi dute. Komisaldegietan, koarteletan edo espetxetan ohikoak ziren. Gerra guztietan tresna bezala erabilia izaki, Gerra Zibilean ere ez zen salbuespena izan bortxaketa. Hala ere, horren gaineko testigantza zuzenak ez dira gehiegi.

Emakume askok, latsagatik edo, bere baitan gorde

izan ditu horrelako pasarte ilunak. Ezagutzen ditugun kasu gehienak, bortxaketaren biktima izan ez den beste emakume batek konstatutakoak dira, beti ere argi utziaz berari ez ziotela ezer egin. Beste kasu batzuk jakin ditugu bortxatu ondoren hil egin zituztelako. Horren adibide lazgarrietakoa Nafarroako Larraga herriko Maravillas Lambertoren kasu ezaguna dugu. Vicente Lamberto, II. Errepublikaren garaian UGTko militantea izan zena, atxilotzera joan zirenean, 1936ko abuztuan, 14 urteko bere alabak, Maravillas izenekoak, bera-ekin joan nahi izan zuen. Goardia Zibila eta beraiekin zihoazen falangista eta erreketak ados azaldu ziren. Herriko udaletxera helduta, aita giltzaperatu eta alaba behin eta berriro bortxatu zuten, Vicentek ziegatik dena entzuten zuen bitartean. Hurrengo egunean aita eta alaba akabatu zituzten. Maravillasen gorpu biluztua txakur-
rek jateko bota zuten.

Espetxean ama izatea

Espetxeratuak izan ziren emakume gehien senarrak edo bikotekideak, kartzelan, ihes eginda edo hilda zeuden. Gainontzeko senideen egoera ere ez zen erraza izaten eta



Maravillas Lamberto, frankistek bortxatu eta hil zuten Larragako neskatxaren kasua, memoria historikoa berreskuratzeko ikur bilakatu da.

batzuetan ez zuten inoren laguntza. Gauzak horrela, emakume presoek ikaragarriko zailtasunak zituzten beraien seme-alabak konfiantzazko pertsona baten ardurapean uzteko. Ama askorentzat, aukera bakarra beraiekin batera kartzelan edukitzea zen. Umeek amek baino gehiago jasaten zuten baldintza gogorretako itxialdiaren bizimodua. Gosea, hotza, zigorrak edo gaixotasunak ziren eguneroko ogia. Heriotza ere bai. Carmen Riera preso ohiak azaldu zuen nola aste batean, 1940ko abuztuan, Saturrarango kartzelan 30 bat haur hil ziren, haien artean bere alaba Aurora, birus ezezagun baten erruz.

Batzuk hiltzen ziren bitartean, beste batzuk jaiotzen ziren kartzelan bertan. Horren adibidea dira Erregimeneko prentsak hainbat zenbakitan argitaratutako haurren bataioak. Haur hauek aitapontekoarekin eta amapontekoarekin batera –normalean Mutriku inguruko frankista ezagunak– azaltzen ziren dotore asko argazkietan. Propaganda eta amen testigantzak ikusita, badirudi frankistak gehiago kezkatzen zirela haurren bataioaz, janaria edo osasun zaintzak emateaz baino.

1940ko apirilaren 6ko BOEn, martxoaren 30eko Agindua argitaratu zen, espetxeetan zeuden haurren egoera arautzeko. Hiru urte-tik gorako haurrak kartzeletatik atera behar zirela esaten zuen. Familiarrak aurkitu ezean, Estatuak bere gain hartuko zituela ere zioen Aginduak. Momentu hartatik aurrera irtenbide baten bila hasi ziren. Inork ez zituen bere seme-alabak Estatuaren esku utzi nahi, berriro ez ikusteko aukerak handiak ziren eta. Seniderik ez zutenek, aske ateratako kideren bati laguntza eskatzen zioten. Beste kasu batzuetan, espetxetik gertu bizi ziren familiek haurrak hartzen zituzten ama kartzelatik atera arte. Horrelako kasu asko ezagutzen dira bai Ondarroan baita Mutriku ere, familia asko prest agertu baitzen Saturrarango espetxeko haurren bat hartzeko. Amak, espetxetik ateratzean, umea berreskuratzen zuen

Kriminologia Institutuaren proiektua

Euskal Kriminologia Institutuak Saturrarango espetxeari buruzko ikerketa multidiziplinarra darama aurrera, Jose Luis de la Cuesta eta Pako Etxeberriaren zuzendaritzapean. Proiektua Emakundek babestu du diruz eta Saturraranen preso egondako 800 emakumeren txostenak ikertu dituzte jadanik. Horrez gain, elkarrizketak ere egin dituzte lekukotzak jasotzeko. Norbaitek informazio gehiago balu, helbide honetara idatz dezake: andernaiz@hotmail.com.

kasu gehienetan. Beste batzuetan, ordea, etorkizun ilun baten aurrean, preso ohiak nahiago izaten zuten haurra konfiantzazko harrera familietan behin betiko utzi, haiekin batera zorigaiztoko bizimodua ematea baino.

Familiaren bat aurkitzerik ez zuten haurrak barnetegi berezi batzuetara eramaten zituzten. Bertan, Antonio Vallejo-Nágera teniente medikuaren teoriak indarrean jartzen ziren; alegia, “eugenesia”-ren erabilpena bultzatzen zen. Teoria horren arabera, ama gorriek komunismoaren gaitza zuten eta haurrak ez kutsatzeko modu bakarra, kontaktu fisikoa saihesteko asmoz, beraiegandik urruntzea zen. Ideia hauek neurrigabeko samina ekarri zuten. Askok izan ziren teoria horrengatik isuritako malkoak. Lege horren pean eroritako haur askok ez zuen berriro bere ama ikusi. Auxilio Social erakunde falangistaren bitartez, arautu gabeko adopzioetan ematen ziren haurrak, frankismoaren aldeko familien artean. Batzuek, eduki ezin izan zituzten seme-alabak bezala hezteko hartzen zituzten haurrok, beste batzuek, morroi merkea baino ez zuten bilatzen.

Emakume askorentzat hau izan zen azkeneko zigorra, beraien seme-alaben lapurketa. Saiakera batzuk egin badira ere, gaur egun, 2011. urtean argitzetik urrun daude gertaera hauek. 1942an 9.059 haur ziren Estatuaren ardurapean. 1943an 12.042. Ume hauetako asko non dauden, gaur egun oraindik ez dakigu. ■



Aurkezlea
UNAI GOMEZ

Juan Mari Juaristi
Ruben Sanchez
Ander Solozabal
Josu Karpo
Iñaki Tena
Unai Mendibil

3. KANPORAKETA

Otsailak 19, larunbata, 20:30ean afaria, 10:30ean saioa

ILARDUIko Herriko Elkartean



Amaia Lasa

«Libertatea oso ederra da, baina oso gogorra»

Amaia Lasaren etxetik Juan Sebastian Elkanoren harrizko eskultura ikusten da. Elkanok ez dio haragizko poetari begirutzen. Norbere munduari buelta ematea zein zaila den badakielako, akaso?

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Etxe honetan bertan jaio zinen. Etxe honetan bertan hasi zinen poemak idazten.

Bai, eta nahiko goiz hasi nintzen euskaraz idazten, etxean giro hori arnasten baitzen: abertzaleak ziren denak, eta nire osaba batek, Lucas Alegriak *Euzkadi* egunkarian idazten zuen. Bazen etxera etortzen zen idazle bat ere, Blas de Alegria, nafarra, aitonaren lehengusua zena, eta liburu asko ekarri omen zituen. Nik galdetzen nien “eta non dira, ba, liburu haiek?” eta erantzuten zidaten “itsasoan”, gerra garaian beldurtuta itsasora bota baitzituzten. Dena den, etxean liburu asko irakurtzen genituen, batez ere, anaia zaharrenak eta biok. Gogoan dut Boris Pasternaken poema batzuk irakurtzen hasi nintzela 15 urterekin. Baina, jakina, garai hartan “Indice” izeneko zerrenda zegoen, elizak aterea, eta han agertzen ziren irakurri ezin genituen liburu guztiak, eta on guztiak ziren!: Dostojevski, Pio Baroja... Egun batean indizeari kasurik ez egitea erabaki nuen, eta gogoak ematen zidana irakurtzen hasi nintzen. Orduan deskubritu nituen XIX. mendeko nobela, Tolstoi, Txejov, Dostojevski, Stendhal...

Noiz hasi zinen Zeruko ARGIAN idazten?

Magisteritza ikasten ari nintzen garaian, gazetxotan. Ordurako hasita nengoen neure kasa poematxoak-eta idazten, baina Zeruko ARGIAN bazen “Gazte naiz” izeneko atal bat, eta atal hartan idazten hasi ginen Ramon Sainzarbitoria, Xabier Lete, Lourdes Iriondoa... Kaputxinoen astekaria zen, baina guk gogoak ematen ziguna idazten genuen. Gazte koadrilla batek orri bat hartu genuen, bi alderekin,

alde batean “Gazte naiz” atala zegoen eta bestean “Herriak eta gizonak”. Bigarren atal hori Rikardo Arregik koordinatzen zuen eta bertan politikaz aritzen ginen. Eta hala txandatzuten nituen poesia eta artikulua, ikasketa guztiak ahaztuta. Irakurri idatzi egiten nuen, baina egun batean gurasoek esan zidaten hura dena oso ondo zegoela, baina neure kabuz bizitzen hasi beharko nintzela, eta orduan gogoratu nuen magisteritza bukatu beharra neukala. Beraz, ikasketak bukatu eta ikastoletan hasi nintzen lanean, hala eman nituen bederatzi urte, hainbat herritan. Helburua hori zen: irakasle izatea eta une berean idaztea, bi lanak txandakatzea.

Lehen emakumetako bat izan zinen orduko literatura erabat maskulinoan. Nola bizi izan zenuen? Aintzat hartua izan zinen?

Nortasun agiria

Amaia Lasa Getarian jaio zen 1948ko abuztuaren 8an. Magisteritza ikasketak egin zituen, baina irakasle baino lehen sentitu zen idazle. 60ko hamarkadan argitaratu zituen lehen poemak eta artikulua, eta 2010ean jalgi da plazara bere azken poema-bilduma: *Itsasoko izaki* (Maiatz). Idazle feminista honek Jaungoiko guztiak ukatu zituen behin, eta ez dio libertatearen bilaketari sekula uko egin. Ogibidez maistra da Zarauzko Orokieta eskolan, eta euskara irakasten die etorkinen seme-alabei.





Maskulinoa bakarrik ez, gehienak, gainera, *frailekumeak* ziren, eta gizartea askoz ere itxia-
goa, erlijiosoagoa: oso erraz eskandalizatzen ziren. Guk gure askatasuna hartu genuen
idazteko, ez ginen kezkatzen besteek zer pen-
tsatuko zuten, baina anaiak eta biok 1971n
argitaratu genituen poemak nahiko eskanda-
lagarriak izan ziren. Hasieran emakume baka-
rra nintzen, baina ez nintzen baztertua senti-
tu. Juan San Martinek nire poemak hartu eta
argitaratu egin zituen, Martin Ugalde ere oso
errespetuzko pertsona zen eta hala tratatzen
ninduen. Nik uste dut bitxikeria nintzela
haientzat, zerbait arraroa. Ez nintzen bazter-
tua sentitu, eta horrekin ez dut esan nahi
talde bezala bazterturik ez gaudenik, baina
pertsonalki une hartan ez nintzen hala senti-
tu. Oso gaztea nintzen, eta oraindik ez nuen
emakumeen bazterketaren kontzientziarik.
80ko hamarkadaren hasieran izan zen femi-
nismoaren lehertzea, eta orduan hartu nuen
nik ere kontzientzia, eta konturatu nintzen
baietz, idazlea nintzela, baina... Baina asko
zeudela. Hala ere, ni pertsonalki baino gehia-
go, esango nuke gure mundua, emakumeen
mundua izan dela orokorrean baztertua.

Noiz eta nola bilakatu zinen emakume feminista?

Donostian bertan, momentu hartan bilera
asko egiten genituen, leku publikoetan, eta

mundu osoan askatasuna eta berdintasuna
aldarrikatuz izan zen lehertze hura hona ere
iritsi zen: jende dezente bildu ginen feminis-
moaren inguruan. Emozio handiarekin bizi
genuen, orduan hasi baikinena ulertzen gure
bizitzetan gertatu ziren (eta ez ziren) eta ger-
tatzen ari ziren gauza asko. Nondik gentozen
ulertu genuen, gizarteko mekanismoak ulertu
genituen eta gauza asko “nire arazo” izatetik
“gure arazo” izatera pasa ziren. Kontua da,
hain dela sakona feminismoak proposatzen
duen aldaketa, mantsoa behar duela derrigor.
Orain 60ko hamarkadako teoria haiek gauza-
tzen ari gara, eta gauzatutakoan ideiak ez dira
pentsatu bezalakoak izaten, beste dinamika
batzuek ere eragina dutelako ideia horiengan.
Askok aurreratu dugu, eta orain gizonek gogo-
eta egin dezaten garaia dela uste dut, erabaki
dezaten zer nolako pertsonak izan nahi
duten, zer nolako maskulinitatea garatu nahi
duten. Nik uste, orain fokua gizonengan
dagoela, eta gizon izatea zer den pentsatu
behar dutela. Hala, eskubide osoko pertsona
gisa elkartu ahal izango gara.

Autoexijentzia moduan ere bizi duzu feminismoa?

Bai, izan ere, libertatea aldarrikatzen dut,
libre izan nahi dut, baina konturatzen naiz
beti ibili izan naizela babes bila, eta azkenean
babesle horrek itotzen nauela. Baina oso zaila

da norbere libertatearekin kontsekuente iza-tea, norbere libertateak ematen duen beldur-rari aurre egitea kosta egiten da. Nolakoa emakumea izan nahi duzun erabaki egin behar duzu, nolako pertsona izan nahi duzun. Hori zaila bada, are zailagoa da hori gauza-tzea, aspalditik datozkigun kate eta inertziek tira egiten baitigute.

Argitaratu zenituen *Nire gelako lau hormak, Hitz nahastuak* eta *Nire paradisuetan*, eta ondoren New Yorkera alde egin zenuen, eta Nikaraguara segidan. Zeren bila edo nondik ihesi abiatu zinen itsasoaren beste aldera?

Garai hartan gure herria nahiko itxia zen, eta itomena sentitzen nuen; Arestik esaten zuen bezala “euskarri herri maitea ezin zaitut maite baina nun biziko naiz zugandik aparte”. Arnasa hartzera atzerrira joan beharra sentitzen nuen. Hemen beti iraultzaren ideiarekin bueltan mugitzen ginen, manifestazioetara joaten ginen, maiatzaren 1ean eta Aberri Egunean, batez ere, eta pentsatzen genuen iraultza egiten genuen egunean gure herria paradisu bilakatuko zela. Horregatik, Nikaraguako iraultza egin zutenean hura ezagutzeko gogoia sentitu nuen, eta horretara joan nintzen. Zorionez, ezagutu nuen, eta iraultzaren beharra konfirmatu eta konbentzitu itzuli nintzen, baina iraultza egitea zein zaila den ere ikasi nuen: boterea hartu dezakezu, han egin zuten bezala, baina gero zenbat borroka, zenbat fronte, zenbat gauza... Zein prozesu konplexua den ohartu nintzen. Askok ikasi nuen han emandako hiru urteetan.

Emakumeek idatzitako literatura intimismoarekin lotu izan da sarri. Aipatu izan duzu oraindik ere intimismoa gaizki ulertua dela, ezin dela esan gai intimoak gai sozialak ez direnik. Gutxietsi egiten da literatura intimoa?

Despektiboki ulertu izan da beti. Bakoitzak barruak agintzen diona egin behar luke: batzuetan bere buruaz hitz egingo du idazleak, besteetan gizarteaz... Kanporako edo barrurako joera ez da inoiz kasualitatea izaten, zerbaiten ondorio da, baina horrek ez du literaturaren kalitatearekin zerikusirik. Gizon askok ohitura handia daukate munduaz hitz egiteko, baina galdu egiten dira barne gaitan, askok beren buruengandik ihesi idazten baitute. Askori ez diete beren barruak arakatzeko irakatsi, beren ahulneekin adiskidetzen irakatsi. Eta guri sarri alderantziz gertatzen zaigu. Argi dago eman diguten heziketa sexistak denoi kalte egin digula, bai batzuk eta bai besteok gure mitoen esklabo gara. Haien morrontzan bizi gara. Kateatuta gaude gure mito propioetan.

Paradisua

“Poema batean esaten dut emakumeok gure paradisua eraiki beharrean besteei lagundu diegula euren paradisuetan bizitzen, besteentzako paradisua eraiki ditugula, alegia. Imaginatu gizon bat, ezkontzen da, familia dauka eta zerbait egin nahi du, eta babes guztia dauka. Eta emakumezko askok aldiz, hamaikak aldiz sinetsi dugu haien paradisua gurea ere bazela, eta ez dugu pentsatu gure paradisua propioa zein zen. Nik ez dakit ziur nire paradisua zein den, ez dut uste absolutu bat denik, paradisua txiki asko daude, baina ziur dakidana da besteen paradisua ez dela nahi eta nahi ez nire. Izan daiteke biren arteko paradisua ere, izan daiteke gizon batekin batera eraikitako paradisua ere, zertan ukatu, ederra delako gizon batekin, haren aldamenean ondo egotea. Baina geuk erabaki behar dugu gure paradisua zeintzuk diren eta norekin eraiki nahi ditugun”.

Emakume gisa, poeta gisa... libertatearen grina agertzen da behin eta berriz zure poesian. Zein da zure betiko barne-borroka?

Nire kontraesan handia libertateaz horrenbeste hitz egin, libertatea horrenbeste desiratu eta libertate hori onartezina da, batez ere, gazte garaian. Libre izateak ondorio asko baititu. Oso indartsua izan behar duzu. Nik ikusten nuen libertatea, nahi nuen libertatea, baina libre nintzenean sufritu egiten nuen, bakardadea sentitzen nuen, ez nintzen ulertu sentitzen... Libre izan nahi nuen, baina, era berean, beti ari nintzen babesle bila, eta kontraesan horretan sufritzen nuen. Orain, jende gehiago ikusten dut askatu nahian, eta bakardade hori ez da hain pisua, talde kontzientziak asko laguntzen du horretan, baina askatasuna beti da gogorra, oso ederra baina oso gogorra.

“Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz”. Horrela hasten da zure liburua. Erraza da Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakumea izatea?

Poema hura idatzi nuenean sentimendu erlijiosoa zegoen batetik, baina baita sentimendu soziala ere. Neure independentzia aldarrikatzen nuen, ez axolagabetasuna, independentzia baizik, eta independente izatea oso gogorra da. Independentzia grinak ez du ukatzen pertsona sozialak garenik: besteen beharra dugu, besteekin elkartu eta gauzak elkarbanatzeko beharra, baina nik elkartze hori nire nitasuna galdu gabe, desegin gabe egin nahi nuen, eta egin nahi dut. Adinean aurrera egin ahala, gero eta indar handiagoa sentitzen dut libertatean aurrera egiteko, libertatea gauzatzeko.

Adinean aurrera errebeldeagoa zara?

Ez, kontsekuenteagoa naiz.

Poema zaharrak eta berriak bildu dituzu *Itsasoko izaki* poema-bilduman, olatu zaharrek eta berriek osaturiko itsasoa bazina bezala.

Behin, poema irakurketa batean ea oraindik Jaungoiko guztiak ukatzen zituen emakumea nintzen galdetu zidaten, eta bai, gaur ere gauza bera esan dezaket. Liburu honetara ekarri ditudan poema guztiekin identifikatzen naiz, nahiz eta batzuk idatzi nituenetik 40 urte pasa diren. Aldaketak aldaketa, oraindik ere funtsean bat nator.

Itsasoarekin eta Nikaraguarekin batera, Harlem, Penelope, Anbotoko Damia eta Safo dira zurekin batera *Itsasoko izaki* idatzi dutenak. Zer eman dizu bakoitzak?

Erabili ditudan sinboloak dira. Harlem garrantzitsua izan zen niretzat, Simone de



BESTEREN AHOTAN

Itxaro Bordak

“Han hemenka aurkitzen nituen Gandiaga, Aresti edo Erdozaintzi-Etxart poeten testuak irensten zituen idazlegaiak nintzen. Alor horretan nahikoa gosaioa izan naiz beti. Baionako Zabal liburu-denda ohian *Nere Paradisuetan* bilduma aurkitu nuenean bizitza aldatu zitzaidan naski, bizitza ez baldin bazen, bizitzaren ikusmoldea behintzat bai. Amaia Lasaren lehen olerkietarako bidea egin nuen eta oroitzen naiz a-e-i-o-u berriarena rock moduan zintzurra larrutzeraino auhenkatzen nuela neska-lagunak zoritzen saiatzeko. Azken urteotan Amaia lanetara itzuli eta uste baino itsaso zabalagoa zela konturatu naiz. Getariarraren ahotsa gero eta premiazoagoa zait. Hango txakoliña bezain”.

Beauvoirrek esaten zuen bezala, han ohartu nintzelako batzuk azalaren koloreagatik zirela zapalduak eta beste batzuk, berriz, gure sexuagatik zapaltzen gintuztela. Bazterketaren bi alde horien kontzientzia hartu nuen Harlemen; eta zu baztertua zarenean beste baztertuekiko sentsibilitatea garatzen duzu. Penelope, aldiz, denboraren sinboloa da. Denboraren mende egon beharrean, nolabait, denbora mendean hartu beharra sentitzen dut, eta horregatik da Penelope sinbolo egokia, berak denbora bere mesedetan erabili zuelako, eta edade batetik aurrera denborari beste zentzu bat ematen zaiolako. Anbotoko Damia, berriz, gure mitologiako izarra izan da beti, eta oraindik ere mito horietan sinesten jarraitzen dugu, gogoak daukagulako, eta Safo aukera sexual baten aldeko sinboloa da, emakumeen arteko maitasunaren sinboloa, horrek ere askatu bainau, dudarik gabe, besteak askatzen diren neurrian ni ere libreago izango bainaiz, eta besteak lotzen diren neurrian ni ere lotuago egongo bainaiz. Beraz, gure emakume taldea askatzen den heinean ni ere askatu egiten naiz.

Zer irakatsi dizu denboraren esperientziak?

Bizitza malgutasun gehiagorekin bizitzen. Bizitzen irakasten du denborak, eta denborak irakasten du denbora bera nola erabili ere. Niri asko gustatu izan zait beti italiarrek erabiltzen duten esamolde bat: “*Il dolce far niente*”, ezer ez egitearen plazera. Egotearen, izatearen, bizirik sentitzearen beraren plazera.

Zoriaren hegadak poeman gorputz zimurtuari, higatutako gorputz biribilduari eta jakituriaz eta jakin-minez beteriko garai berriari egiten diozu erreferentzia.

Oso matematikari txarra naiz eta horrek badu bere alde ona: bizitza ez dut zenbakitan neurtzen. Batzuek pentsatzen dute “hoge urte geratzen zaizkit”, eta halako kalkuluak egiten dituzte. Nik ez. Ez dut horretan pentsatu ere egiten. Badago esaldi bat esaten duena: “Nik ez nuke zahar maniatiko izan nahi, emakume jakintsu izan nahi nuke”, eta horrekin bat nator. Hala begiratzen diot zahartzaroari.

“Poema sinboloz eta mitoz hustu zenean zu zeunden poema hutsaren hondoan, biluzik, behargarri, negarrez, maitasun eske”. Maitasun eske idazten du poetak? Idazten duzu zuk?

Ez, poema horretako narratzailea, nire gogoan, gizon bat da, beti sentimenduak ukatu izan dituen. Baina, azken finean, poemak dio, biluztean behartu dela, maitasuna eskatzen duela edozein emakumek bezalaxe, denok behar dugulako eta denok gaudelako behargarri. Gizon asko lepotik gorakoak dira eta, modu irrazionalen, sentimenduak beren arrazionalitate pasatzen saiatzen dira. Baina ezinezkoa da. Alferrik da sentimenduei garrantzia kendu nahi izatea. Gizon asko sentimenduei pisua kentzen saiatzen dira, eta esaten dute emakumeok garelako ahulak, sentimenduak mendean hartzen ez dakigunak, dependenteak. Baina gezurra da hori. Denok baikaude biluzik, behargarri, negarrez, maitasun eske. Izan nuen behin bikote bat etengabe askatasunaz hitz egiten zuena, baina nire etxetik joan eta kalea zeharkatzeko izugarritzko nostalgia sentitzen zuena. Askatzearen beldur izugarria zuena. Ahulak gara, eta eskerrak ahulak garen. ■

argia.com Poesiaz eta feminismoaz luze gure webgunean.

Lau kontakizun istorioen hiritik

Euskal Herria atzean utzi eta helburu argirik gabe baina zerbaiten bila abiatu ziren New Yorkera, munduko hiririk ezagunenera, filmatuenera. Hasierako abentura bizimodu egonkor bilakatu da jada, alde on eta txarrekin, eta herriminak bihotzeko atea jotzen du tarteka.

Testua eta argazkiak:

IGOR SUSAETA

Amaia Apellaniz

«Hasieratik sentitu nuen nire hiria zela»

BEGIRATU TXINPARTADUNA dauka Amaia Apellanizek (Legazpi, 1978). Eta soa are gehiago pizten zaio New Yorki buruz hitz egiterakoan. 2002ko abuztuan heldu zen, “Gasteizko festen ondoren”. Lau urterako bisatua eman zioten iritsi berriari, eta hiru urte eta erdi eman zituen etxera itzuli gabe. “Hasieratik sentitu nuen nire hiria zela”. Eta gauza asko eman dizkio: “Nahi izan dudana lortu ahal izan dut”. Ez du uste, ordea, ezer kendu dionik: “Egoeretara moldatzen zara. Zerbait kentzen ari zaizula nabari baduzu, ez zara pozik sentituko”. Zerbitzari egiten du lan, aktorea da bokazioz, eta Nazioarteko Harremanak ikasten ari da. “2012an bukatuko ditut ikasketak ondo bidean. Orain hori da nire lehentasuna. Gero, ikusiko dugu”.

Iritsi zenean ez zeukan asmo argirik. “Antzerki ikasketak bukatu berri nituen Madrilen, eta han geratzeko nolabaiteko beldurra neukan. Antzerkiarekin jarraitu nahi nuen, baina han jende mordo zegoen nire egoera berean”. Hortaz, New Yorkera: “Ingelesa ikastera eta zer nolako antzerki giroa zegoen ikustera”. Nahiko azkar hasi zen lanean (“lehen errazagoa zen”), eta hirian bi hilabete baino ez zeramatzanean, pertsona bat ezagutu zuen. “Audientzia bat eskaini zidan antzerki obra baterako, eta hama-bost hautagaien artean ni aukeratu ninduten”. Urte ederrak izan ziren Amaiaarentzat: “Produktzio berri bat, entseguak, birak... Ziztu batean pasatu zitzaizkidan

lehen urteak”. *Guadalupe años sin cuenta*, *Tell them not to kill me*, *A clear midnight* edo *El pesebre* obretan lan egin du, besteak beste. Sarietarako hautagai ere izan da, gainera.

Ez dauka une gogorrek pasa dituenaren sentsaziorik. “Ez dut herriminik eduki... Baina familia faltan botatzen dut. Asko. Beti sinetsi dut aurrera egingo nuela. Hiriak inoiz ez nau zanpatu”. Zortea izan duela aitortzen du. “Laguntzeko prest egon den jendearekin elkartu naiz beti. Berdin du nongoa zaren. Aurreiritzirik gabe jokatu izan dute nirekin, eta hori eskertzekoa da. Tira, orain, migrazio politikak direla-eta, zailagoa da hemen egonkortzea”. Hiria aldatu egin dela iritzi baitio: “Igual ni naiz aldatu naizena! Beharbada ez daukat hasieran neukan indar hori gauzak deskubritzeko”. Baina den-dena “gogor lan eginez” lortu duela nabarmendu nahi du.

Antzerkita bueltatzeko asmoz, orain ikasketekin dabil buru-belarri, zerbitzari lan eginez. “Hiri honek ikasketak eta lana bateragarri egiteko aukera ematen dizu. Beste edonon hori egitea oso zaila da. Euskal Herriko bizimodua lasaia da. Ez dakit

nola adierazi. Nik hemengo bizitasuna eta aukera aniztasuna atsegin ditut: kontzertu mordo dago, antzerki eskaintza amai-gabea, munduko edozein txokotako janaria dastatu dezakezu...”. Bizitasun eta dibertsitate horrek, ordea, bere eragin negatiboa dauka: “Harremanak azalekoak dira. Hemen lagun oso gutxi egiten dira. Oso zaila da harreman batean sakontzea. Jendea bolada baterako etortzen da normalean. Bestela, bakoitzak bere ordutegia dauka, bere gauzak... Eta ez da erraza”. Apellaniz, ordea, bizibizirik sentitzen da munduko hiriburuan. Eta begirada piztu zaio.



Eder Montero

«Bizimodu jakin bat exijitzen dizu hiri honek»

INGELES IRAKASGAIAN ez omen zen ongi moldatzen. Hori esaten zion irakasleak Eder Monteroren (Bilbo, 1975) amari. Haren semeak ez zuela inoiz hirugarren hizkuntza bat hitz egin ahal izango. Saiatzea ere alferrik izango zela. Ba, oker zebilen irakaslea. Izan ere, Montero New Yorken bizi da 1999az geroztik, ingelesez taxuz mintzo da, eta Txikito jatetxearen jabea da Alex Raij emaztearekin batera. 2008ko azaroan ireki zuten. “Auzoko jatetxea gara nolabait esateko, eta euskal sukaldaritzaz lantzen dugu”. Hala definitu du Monterok bere lantegia. New York hiriarren filosofiari buruzko azalpena eskatuta, aldiz, ez du bitan pentsatu: “Bizimodu jakin bat exijitzen dizu hiri honek, saiatur, oldarkorra...”. Beharbada horregatik maite du New York: “Zoragarria iruditzen zait”.

Orain hamabost-hamasei urte, ordea, “*yan-kee go home*” aldarrikatzen zuen horietakoa zen. 1993an Donostiako Ostalaritza eskolan hasi zenean, Monterok ez zuen imajinatzen bospasei urte geroago munduko hiririk zine-matografikoenera joango zela lanera. “Inondik ere”. AEBetara jo aurretik, Bartzelonan ibili zen Sergi Arola, Marc Singla eta enparauekin. “Haiei esker jarraitu nuen ostalaritzan”. Mallorcara joan zen hurrena, Koldo Royorengana. Eta han Luis Bollo donostiarra ezagutu zuen. “New Yorkera etorri nahi al duzu?”, esan zion Monterori. “Nik hasiera batean ez nuen nahi... Baina begira, jada hamaika urte daramatzat hemen”.

Meigas jatetxean lan egin zuen aurrena. Japoniako sukaldaritzaren zalea izanik, Nobu-n aritu zen gero. Eta Txikitoaren ateak ireki aurretik, Euzkadi izenekoan zein Tia Pol-en zizelkatu zuen berezko estila. Bere kabuz hasia erabaki baino lehenago eskarmentuaren zakua ederki beteta zeukan, hortaz. “Hemen ezer ez da ezinezkoa”. Monterok euskal sukaldaritzaren aldeko apustua egin zuen. “Nahi duzuna prestatu dezakezu hemen”. Baina lehiakortasuna izugarria da. “New Yorken ezer ez da segurua. Euskal Herrian, adibidez, jatetxe bat irekitzen duzu, eta esan daiteke bizi guztirako dela. Hemen ez. Ni orain eman beharreko hurrengo pausoa zein den pentsatzen ari naiz, jatetxeak bi urte baino ez dituen arren”. Jendeak, gainera, ez du barkatzen. “Gaur primeran joan daiteke dena, baina hurrengo egunean morroi batek egurra ematen dizu blog



Ezker-eskuin:
Alex Raij, Mikel
Urmeneta
(Kukuxumusu)
eta Eder
Montero,
Txikito
jatetxean.

batean auskalo zergatik, eta negozioa piku-tara doa”.

Modu batean edo bestean, baina lehiakortasun hori pertsonengana hedatzen dela uste du Monterok: “Hemen ezin duzu nahi duzuna adierazi. Lagunen arteko harremanak arraro samarrak dira. Ez dago laguneneko arteko terapiarik, nolabait esatearren. Terapia ere, ia dena bezala, ordaindu egiten dutel”. Baina oso gustura dago New Yorken: “Hiri hau energia da, eta momentuz bizimodu honek motibatzen nau. Aurrera egiteko indarra ematen dit”. Adibide bat jarri du: “Basque taberna ireki dute hotel batean, eta horrek are gehiago motibatu nau. Nor zaren erakutsi nahi duzu”.

Langile fina da Montero. Jatetxean ordu mordo ematen dituen. “10:30etako han nago. Eta 21:30ak baino lehenago ia inoiz ez naiz ateratzen”. Prestatzen dituen plateren artean txerrikumea da arrakasta gehien duena. Eta bezeroen artean, %40, gutxi gora-behera, finkoa da, ia egunero joaten dena. “Sekulako poza hartzen duzu”. Jeneroa ere primerakoa daukate. “Dena edo ia dena da Euskal Herrikoa; eta hala ez bada, hango erara prestatzen ditugu jakiak”. Eta ardoen hautaketa... apartekoa. Euskal Herriko elikagaiekin lan egiten du, euskalduna da, Athletic-ekoa, baina etxera bueltatzen den bakoi-tzean sentimendu arraroak batzen zaizkio barrenean: “Lehen, Bilbora joaten nintzenean, itzultzeko gogo sartzen zitzaidan. Orain, aldiz...”. Baina faltan botatzen du aberria: “Noski! Jendearekin daukazun harremana, giro hori, egunero taberna berean hartzen duzun kafea...”. Baina beste bizimodu bat exijituko lioke, eta oraingo New Yorkekoak asebetetzen du.

Iñaki Bakedano

«Egun bakoitza ezberdina da hemen»

OSO ONDO BIZI ZEN Iñaki Bakedano “Txeroki” (Hernani, 1966) Euskal Herrian. “Ez neukan handik alde egiteko asmorik”. Argi teknikari lan egiten zuen antzerkian, telebistan eta musika kontzertuetan. Baina Kirsten, bere emaztea, ezagutu zuen. “Minnesotakoa (AEB) da, eta Donostiara joan zen gaztelania ikastera”. Eta zerbait berria probatzearren, biak New Yorkera heldu ziren 1992ko iraillean. Ez zeukaten asmo zehatzik, baina jada 18 urte daramatzate East Villagen. Hiria asko aldatu da Bakedanoren ustez, eta berak garai batekoa atsegin zuen gehiago. Baina New Yorkek badu energia “berezi” bat, eta gainera, berezkoa duen erritmo bizi horri eusten dio. “Egun bakoitza ezberdina da hemen”.

Bakedano bera erritmo bizian mugitu izan da hirian. Ingelesa ikasten “sei bat hilabete” pasa ondoren, lanean hasi zen. “Bizikletarekin ibiltzen nintzen mezulari gisa. Orduan mezulariak bakarrik ibiltzen ginen txirrinduarien hirian barna. Nik gozatu egiten nuen taxien artean-eta sartzen. Jolasa zen”, esan du umoretsu. “Burdin pusketak izan arren, bizikleta mordoxka bat lapurtzen zituzten. Egun ere bai, egia esan. Horregatik jartzen dizkiete jabeek giltzarrapo erraldoiak”. Baina hiria azkar eraldatzen da, eta ondorioz, jendeak lan batetik bestera erraz eta modu naturalean salto egiten du. Bakedano, hortaz, lokalak zaharberritzen aritu zen hurrena.

Lehen urteak “oso punkyak” izan ziren haren irudiko. East Villageko giroa ere halakoxea zen. “Iritsi nintzenean gaztetxeak bezalakoa izan auzoko tabernak”. Ramones taldea East Villagetik ateratakoa dela gogoratu du, adibidez. “Garai hura nahiago nuen nik. Orain diru gehiago dauka jendeak, eta hortaz, dena da *cool*-agoa, erosoagoa... Tira, garaian garaikoa”. Gauza batzuk, ordea, ez dira aldatzen. “Izugarria da metroan joatea eta hamai-ka hizkuntza ezberdin entzutea. Horrek kristoren indarra ematen dit eta konturatzen naiz oso garrantzitsua dela hizkuntza propioa edukitzea, guk euskara daukagun bezala. Ez gaztelania edo ingelesa. Ez. Euskara, gurea dena”.

Turista euskaldunek ere maiz jotzen dute New Yorkerantz. Baina Bakedanoren iritziz, gutxi dira ohiko tokietatik kanpo ibiltzen direnak. “Metroan nindoan lehengoan, eta nire buruari galdetzen nion ea turistak zergatik ez diren joaten East Villagera, adibidez. Hor ez



daukazu argiek sortzen duten lilura hori, baina benetakoa da eta gauza txikiek ematen dizuten plazera esperimentatu dezakezu. Taberna zaharrak, detaileak...”.

Hain zuzen ere, detaileak zaintzea da, egun, Bakedanoren egiteko nagusietakoa. Badira hiruzpalau urte argazkigintzari emana bizi dela. “Lan eta lan” aritu ondoren, apustua egin zuen: “Diru aldetik-eta egoera egonkorrean nengoen, eta aurrera”. Brooklynen estudio batean aritu da lanean, baina hango giroa itzaltzen ari dela dio. “Orain West Williams-burgera joateko asmoa daukat. Mugimendu handia dago han”. Erakusketa bat ere atondu du bere argazkiekin, baina zaila da nabarmentzea: “Harremanetarako oso abila izan beharra daukazu, *party*-etara joan, zure burua saldu... Eta nik ez dut gogoko hala ibiltzea”. Pratt eskola entzutetsuan eskolak hartu zituen teknika fintzeko, eta bere bidea egiten ari da Bakedano: “Nire lanarekin oso kritikoa naiz eta produktua lantzen ari naiz oraindik ere. Hori bai, badakit gutxi gorabehera nondik joko dudana”. Argazkiak txuri-beltzean landuko ditu. “Hori, ziur”. Eder askoak ateratzen ditu.

Horretan ari da orain. Eta hiriarekin gozatzeko. “Bizi-bizirik sentiarazten nau, harremanak, Euskal Herrikoekin alderatuta, oso ezberdinak diren arren”. Eta aberria aipatuta, Bakedanok badu harantz behin-betiko bueltatzeko intentzioa. “Kirstenek, gainera, izugarri maite du gure kultura, gure bizitzeko modua”. Ez daki, ordea, noiz itzuliko den. “Dena den, urtean pare bat hilabete pasatzen ditut etxean, eta, teknologia berriek askoz ere gehiago gerturatu gaituzte. Ia-ia bi tokietan nagoela esango nuke”. “Txeroki” deitzen diote gazteagoa zenean ilea luze eramaten zuelako. New Yorken ere ibilbide luze, oparo eta zirraragarria osatzen ari da. Egun guztiak ezberdinak izateak izango du zerikusia horretan.

Patxi Olabe

«Ez dakit hiriak zer eman didan, baina badakit zer kendu didan»

ELIZONDOKO eskolako maisua izan zen Patxi Olabe (Elizondo, 1960) hamahiru urtez, 1979 eta 1992 artean. Baztan bailaran. Toki ederra. Bukolikoa. “Herri txiki batekoa naiz, baina garai hartan oso hirizalea nintzen”. Bidaiatzako zaletasuna ere bazuen, eta 1989ko Gabonetan Dominikar Errepublikara joan zen oporretan. “Han pertsona batekin maitemindu nintzen”. Hurrengo bi urteetan beste sei aldiz itzuli zen Karibera. “1990ean mutil harekin hilabete bat pasatzera etorri nintzen New Yorkera. Lehenago, 1984an, beste hilabete bat egin nuen hemen”. Olaberen mutil-lagunak moda ikasketei bultzada eman nahi zien, ordea, eta *City*-ra joatea erabaki zuen 1992an. “Eta ni harekin etorri nintzen”. Ia 19 urte orduraz geroztik. Hiria maite du Olabek, baina “maitasun-gorrito harremana” dauka harekin. “Ez dakit zer eman didan, baina badakit zer kendu didan”.

New Yorken lur hartu zuenetik urte asko pasatu diren arren, Baztango euskara ederra darabil Olabek. Hizkuntzari eusten dio. Ez du, aldiz, herria, familia eta lagunak agurtu zitueneko unea gogoratzen. “Ez nekien hemen zenbat denbora egingo nuen. Lanean urtebeteke eszedentzia eskatu nuen”. Hasiera gogorra egin zitzaion. “Baina ilusio handia neukan. Toki berria, gauza berriak, gizarte ezberdina... Niretzako oso interesgarria zen”. Lana bilatzea ere nekeza izan zen. “Eta topatu nuenean, ordu asko sartzen nituen baina diru gutxi irabazi. Kontent nengoen, ordea. Gauza asko nituen ikusteko zein ikasteko”. Hasi, haren atarian, Lower East Siden, bizi zen pertsona batekin hasi zen lanean. “Kamioia zuen, eta altzari zaharren toki-aldaketan laguntzen nion”. Gero hasi zen zerbitzari, eta gaur arte. “Tira, garai batean, zerbitzari lana utzi gabe, ingelesetik gaztelerara itzulitako testuekin laguntzen nion hizkuntzalari bati”.

Eta tartean une latz bat. “Nire orduko mutil-laguna 1994an hil zen, gaixotasun baten ondorioz”. Baina aurrera egin zuen Olabek. Beste New York bat zen garai hartakoa. “Nire ustez, benetakoagoa. Gaur egun, Disneylandia-aren itxura dute toki batzuek...”, bota du umoretsu. “42. kalean, adibidez, sex-shop mordoa zegoen. Hiria garbitu zuten 1990eko hamarkadan. Bai, zer edo zer garbitu behar zen, baina... Garbiketa




morala izan zen neurri batean”. Baina kulturen arteko nahasketaren topaleku izaten jarraitzen du. “Mundu guztia dago hemen. Ez zara arraro sentitzen. Zu bezala ingelesez ongi mintzatzen ez den jendea dago. Niretzako oso erraza izan zen ohitzea. Denak kanpotarrak diren multzo batean integratzea ez da zaila”. Ingeles maila apalarekin etorri zen, baina ederki moldatzen da egun. “Kontua da hemen gaztelaniaz ia mundu guztiarekin mintza zaitezkeela. Halere, pentsatzen dut nire gaztelerak okerrera egin duela eta nire ingelese ez dela gehiegi hobetzen ari”, barrez.

Hizkuntzen ezagutzak norbera irekitzen omen dute. Eta New Yorkek, hiriak berak, ere bai, Olaberen arabera: “Hemen jende diferentea onartzen da. Euskal Herria, adibidez, oso homogeneoa da, eta iruditzen zaigu beste kulturak ez direla gurea bezain onak. Baina toki guztietan ezagutu daitezke pertsona onak eta txarrak, eta gauza onak eta txarrak”. Hiriak ikuspegi irekia eman diola uste du Olabek. “Hizkuntzekiko, gastronomiarekiko, bizitzarekiko, arrazekiko...”. Baina hirian bizi denez, onartzen du segurtasunarekin obsesionatuta dagoela. “Igual etxean zein kalean lapurtu didatelako izango da. Dena den, garai batean baino seguruagoa da”. Gauza batzuk, dena den, sekula ez dira aldatuko New Yorken. “Bakardade ikaragarria sentitzen da. Oso zaila da jendearekin egotea, lagunekin elkartzeta. Animalia zara oihasan basatian, eta bakarrik borrokatu behar duzu”.

Euskal Herrira bueltatzearen ideia mila aldiz pasatu zaio burutik, “baina sekula ez dut intentzio argirik eduki. Hemen daukat nire bizitza, lana, mutil-laguna... Itzultzea ez dut erraz ikusten. Zer egingo nuke han?”. Baina familia eta lagunak faltan botatzen ditu. Urtean behin hilabete pasatzen du Elizondon. “Hiri honek, ordea, harrapatu egiten zaitu. Ez dakit zer daukan”. ■

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Balioa baliogabetu

Armadun izateko eskubidea, eta zoriotsu izatekoa, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) Konstituzioaren itiak dira. Gurean, arma bat daukan jende kopurua –lizentziarekin eta lizentziarik gabe– askoz ere handiagoa dela, zoriotsua den jende zenbakia baino, ziur baino ziurrago nago. Euskal Herrian gehiagorako ehiztari sonatuak txori erresinulak baino. Baina badago politikaren munduan, ene ustez, AEBetako Konstituzioak agintzen dituen bi eskubide horiek baino gauza oraindik ere lerdoagorik, eta da egungo politikaren dimentsioari gaur ere politikaren dimentsio esaten jarraitzea. Hauteskundeak aipatu zituen Anak, eta nik burua astindu nuen, ideia beltz batzuk uxatu nahirik bezala, baina lehengoari ekin nion. Idatzi ala ez idatzi egon nintzen; azkenean, gaurko sistema politikoaren egitura funtzionalari buruz dudari iritzi ezkorra zertan oinarritzen den esango dut: esperientzia pertsonalaz aparte ere, betidanik iruditu izan zait harrigarri alderdien herrietako zerrenda-gai antologikoetan beren izena ematea onartzen dutenen irribarre gozoaren ziurtasuna, ongi sentitzen direla sentitzen diren bezala, eta komunitate politikoaren parte izateak sentiberatasuna areagotu diela. Gauza bera gertatzen zait neuri ere alkoholik gabeko zerbezaz mozkortzen naizenean. Alderdi politikoek beste edozeinek bota edo galdu egingo zituen arrazoibideak arduraz gordetzen dituzte, artista arruntek bezala, izan ere, erabat ziur baitaude arrazoibide horiek, objektiboki deus balio ez dutelarik ere, jenio talde baten emaitza izaki, noizbait izango duten garrantziaz. Ez da beti horrela, noski. Baina, bai, ia-ia beti. *Eromen demokratiko* honetan, duela gutxi ikusi dugu, lotsa-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

gabekeriaren markak hautsi aldera, gure etorkizun petrala negoziatzen dutenek zer nolako orain pribilegiatuak bizi dituzten. Ez dut nik ideiarik ere beste ordezkatzesistema politiko bat proposatzeko, baina txarrenen artean txarrena ez dena erabaki behar hori ikaragarri tristea iruditzen zait. Ikara-

garri gaizki. Eta uste dut badugula zertan kezkatutik. Eta ardura zaigu. Gure politikariak ez baitira politika ulertzen trebeak. Eta herriaren ordezkaritza utzi nahi diegula esatean ez gaituzte ulertzen. Nik uste dut, gaur egun, politika gaizkien egiten duten herrien artean dagoela gurea. Metafora politikoa da, noski, baina ez dakit jasoko ote duten. Eta nik bezala, askok eta askok uste dute gauza bera. Baina deus egin gabe jarraitzen dugu arazo erromantiko horren aurrean. Etsita. Eta osagai nagusienarik gabe geratzen ari gara politikan: esperantza. Eta beldurraz betetzen ari gara esperantzaren lekua. Zorionez, Beñatek ederki erakutsi zigun bezala, ongi menderatzen dugun gaia da futbola. Eta Eguraldia 24: itsasoko uraren tenperatura. Eta gastronomia, sukaldari gazteak egiten ari diren garrantzizko lana. Euskal poesiak planktonaren espezie baten desagertzeak baino interes gutxiago du. Politikari arruntek, ene ustez, norbanakoaren balioa baliogabetu egiten dute. Politikari arruntek asko hitz egiten dute,

baina ez dute ezer esaten. Nire hitza da nire etorkizuna, ez haiena. Gehiago naiz, sistema politiko bat baino gehiagorik naiz. Ez dago nigan agintzerik duen inolako gauzarik, pertsonarik, estaturik. Ni naitzelako nire bizitzarengan agintea duen bakarra. Eta ahalmen hori da nik orain aukeratzen dudana, neure burua gogo bizi nabarmenez libre eta kirol karnetik atera gabe bizitzeko. ■



Ez dut nik ideiarik ere beste
ordezkatzesistema politiko bat proposatzeko,
baina txarrenen artean txarrena ez dena
erabaki behar hori ikaragarri tristea iruditzen
zait. Ikaragarri gaizki. Eta uste dut
badugula zertan kezkatutik



Pako Sodupe

IDAZLEA

Oraingoan bai: aro berria!

Berandu baina heldu da. Espainiako Gobernuak –Frantziakoa lagun leiala duela– temati eta anker jarraitzen du ETArek erabateko armagabetze ezari etekina ateratzen, Gobernuaren esku-makila den fiskal, epaile mendekatiaren eta polizien lankidetzaren osoz –politikoki mugitzen diren gazteak torturatzeko eta izuarazteko–, eta jarraituko du ere ETA desagertu arte, eta hori gertatu ondoren. EAJko zuzendaritza nagusia hori ikusten dugu PSOErekin bat-bat eginda. Eszeptizismoa ezin bada, berehalakoan kendu gaitetik!

Hegoaldeari gagozkiola, euskal alderdiak bitara bildu gabe, PP/UPN eta PSOE-PSE-PSNren agintepean jarraituko dugu hamarkadarik hamarkada. Nazio bezala pentsatuz, EAJren inguruak behar du bloke batean, eta gainerako alderdi abertzale eta autodeterminazioaren aldekoak bestean, eta bien artean, akordio funtsezkoenetara helduaz, ezer aurreratzekotan, kaltegarri zaizkigun keria guztiak alde batera utzirik.

Zertarako aldaketa politikoa? Gizarte eta politika gai nagusiei buruz, bestelako diskurtsoa eta bestelako praxia abian jartzeko.

Gehien eragiten didanari helduz, gurean oso zabaldurik dauden ideia oker batzuk: hizkuntzak komunikatzeko dira; euskara erdara baino



DANI BLANCO

zailagoa da eta horregatik erabiltzen da gutxiago; euskara ez da politizatu behar, ez dago arriskuan EAEn behintzat, eta euskaldunok biktimismo historiko merkean jausten gara.

Espainolik gabe Espainiarik ez, frantsesik gabe Frantziarik ez; komunikatzeko balioaz gain, konstituzio politikoen munitate gure auzo hizkuntzak; egun euskaldun gehienentzat erdaraz idaztea errazagoa da: zergatik? Orain arte gutxi erabili dugulako; eta gutxi erabili da Espainiako eta Frantziako klase gidariek plaza publikotik kendu dutelako, bere balio sozial kultural politikoa xurgatu diotelako inposizio osoz.

Bestelako dinamika bati ondo ekiten dago arbaso euskaldunak ditugunok iraganaren deia kasu egitea: gure aurrekoak euskaldunak ziren, katea ezin dugu eten; baina, batez ere etorkizunera begira jokatzeko dugu axolazkoena: zenbat eta alor gehiagotan landu eta erabili euskara, orduan eta burujabeago, eta burujabetzaren zaleago, orduan eta subjektu politikoa eta sendago askatasunerako.

Espainiar eta frantziar zaletasuna euskaraz erein izan da, eta gaur ere ereiten ari da, baina diskurtso eta praxi euskaldunak beti eman dio eta emango ere indar berebizikoa askatasun politikoa alderdi dinamizari. Ez da hala? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ezagunekin topo egin nuen joan zeneko igandean. Telebistatik gabeko futbola ikustea maite dut. Zelai berean, asteburuan, sei zazpi partida jokatzeko diren herriko taldeak jarraitzean, garai bateko ezagunak ikusteko parada izaten dut. Ez dira gutxi, holakoetan ikusitako jokalaririk ohiak. Eta iragan igandean, orain hogeita hamar bat urte ikusi gabeko hiru topatu nituen zelaiko kantuan. Lehen kolpean ezagutu nituen beraingana zuzendu nintzen, zerbitzariak “hor daukazu zurea” esaten zidan bitartean. “*No sabía que supieses el vasco*” bota zidan gazteenak, jokalaririk gisa ezagutu izan nuen, garai hartan

Aspaldiko

maisutza ikasten zuena. “Zuekin ez zen posible, guztiak erdaldunak zirenen”. “Tartean euskaldunak baziren, halakoa eta hola-koa” argitu zidan. Nondik hasiko nintzaion esplikatzeko bera nuela akorduan, euskara entzun orduko aurpegia zimurtzen zitzaioala, ikasketetan bere ezgauza euskarari eragozteko inongo lotsarik ez zuena. Irakaskuntzan jarraitzen du. Agian, euskara ikas zezan bereziki urteak eman dituenetakoa da, azterketak oso gogorrek eta gaindiezinak direla esaten duenetakoa, ni bezalako baten aurrean “*claro tú tuviste la suerte de aprenderlo en casa*” esateko gauza badena. Badakit non ari den maisutzean, gurek zapalduko ez duten ikastetxean. ■

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Gudan gaude



atrix pelikulan bezala, makinaren aurkako gudan gaude. Makinan pentsatu nahi baduzu, pentsatu gobernuan, parlamentuan, alderdi politiko eta komunikabideetan.

Pentsatu gizatasunik gabeko teknologia juridiko eta instituzional sofistikatu horretan. Hori da makina. Ez dauka bihotzik; baina aurpegiak badauzka. Rubalcaba, Zapatero, Lope, Urkullu.

Bilduta daude makinaren programatzailerak. FMI, ACS, BBVA, SANTANDER, FCC, ENDESA. Makinaren gainetik daude. Programatzailerak dira, ez dira gu bezala. Gu baino lehenago ohartu ziren gudan gaudela, eta aurea hartu digute.

Herritarrak boteregabetzeko programatu dute makina.

Hipotekak ito egiten gaitu. Lanik gabe edo prekarietatean, makinak ez dizu arnasarik hartzen uzten, *off* zaude. Zergak igo, argia igo, gasolina igo. Pentsio erreforma. Gizartea EEEn dago. Makinak baditu mila bide herritarrak odolusten jarraitzeko.

Errauste-planta eraiki. Herritarrak pobretu. Herritarrak gaixotu. Herritarroi ardura zibikoak kendu, hezkuntza hiritarra kima-tu. Makinak horrela gobernatzen du. Hori da Madrilén, Gasteizen edo Donostian daukaguna.

“*Indignez-vous!*” dio agureak. Eta zinez, guda hau irabazi nahi badugu... Ingeniariak,



EGOITZ LASA

langabetuak, autonomoak, ikasleak, irakasleak. Non arraio daude gazteak? Baita agureak ere! Guztiak beharko ditugu.

Gizadia odolusteko makina asmatua dago. Martxan jarri dute. XXI. mendeko teknologia, eta XXI. mendeko paranoia. Erreal da. Morfeo, non zaude?

“*El comunicado de ETA cae sobre un colchón de unidad*”. Makinaren batasuna da.

Herritarrak makinaren zerbitzura eta makina programatzaileen zerbitzura, horrela jarrita dago. Herritar mehetuak, kapitalista gizenak. Injustizia sozialaren datuak izutzeak dira. Aberastasunaren %80a gizartearen %20ak gordetzen du. Tarte gobernu, kapitalistentzat bazka herritarron hesteetan bilatzen. Makina bera Alemanian, Grezian, Irlandan, Portugalen.

Ilegalizazioa. Atxiloketak. Torturak. Makinatik irten nahi duenari makila. Egia dakienari. Makinak nola funtzionatzen duen esaten duenari. Espazioak irabazten dizkietenei. Hernani, Oiarzun, Usurbil. *Matrix*eko kartzelan askatasunak 8719600510 zenbakia du.

Zuk ere, nik bezala, ekonomia politikaren zerbitzura ikusi nahi baduzu, eta ez alderantziz; zuk ere, nik bezala, politika herritarron zerbitzura ikusi nahi baduzu, eta ez alderantziz; orduan zu ere, ni bezala, makinaren aurkako gudan zaude. ■



Ekonomia politikaren
zerbitzura ikusi nahi baduzu,
zuk ere, nik bezala, politika
herritarron zerbitzura ikusi
nahi baduzu, orduan zu ere,
ni bezala, makinaren
aurkako gudan zaude



TXANDAN

Andoni Mujika



Agertzeko beharra berezkoa da pertsonengan, naturala. Animaliatan ere ikus daiteke helburu bat lortzeko. *Kortejoan* adibidez. Galdetzen dut portaera horren azpian ez ote dagoen *botere* nahia. Suabeago esanda: gainontzekoen artean nor izateko premia. Hala bada, kasu batzuetan arriskutsua ere izan daiteke. Boterearen arriskua esan nahi dut. Beraz, neurri kontua al da? Ba igual ez. Beharbada, hurkoarentzat arriskutsua da guztion agertzeko gogo hori (bizitzeko oinarritzko ogia dena) protagonistak jan egiten dionean. Agertokien monopolioa eragiten duenean. Horixe da azaldu nahi nuen

Agertzeaz

lehen arriskua. Bigarren arriskura joan baino lehen, beste komentario bat: agertzea aklamatu eta txalotua denean, plazenteroa da bai indioilarrarentzat, baita indioentzat ere. Txalorik ez dagoenean, oster, oinazea dakar, frustrazioa eta botere-galtzea. Lumak jausi egiten dira. Eta nire buruari galdetzen diot: zergatik behar dute batzuek exhibizio dosi handiagoa eta beste batzuek txikiagoa? Uste dut batzuek, edo guztiontzako agian, aurrea jarraitzeko doako droga dela. Doakoa esan al dut? Ba ez dakit. Hemen legoke bigarren arriskua: neurrigabe protagonista izan behar horrek, ospearen gulak, helburu handiagoak sekundarizatu ditzake. ■

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Gezurtiaren estrategia

Kattalinek bere urtebetetzea ospatu behar du erdigunean zaharberritu duen etxebizitza puskan. Aspaldian da lagunokin ez dela egoten eta, jai gose, nahi du denok joanda ederra egin dezagula.

Nik etxean gelditzea erabaki dut, baina ezin diot hola esan. Herri ezjakituriak kontrakoa aldarrikatu arren, adiskide on bati gehienbat esan behar zaio gezurra. Astelehenean odola atera behar didate (hemen komentatu nahia-go ez dudan zerbaiteko) eta ez nabil oso adoretzu. Nirean lasai egotea komeni zait. Festara Ander joango balitz sikiera. Ander joango balitz birpentsatuko nuke. Agertuko nintzateke seguruenik. Baina bera ez dago Kattalinekin e-mailean erantsi duen konfirmatuen zerrendan.

Lan kontuengatik, Logroñora joan behar dudala erantzun diot. Urteak dira ez naizela Logroñon egon.

Izan dut arreta handia aitzakiarako hitz zehatzak aukeratzerakoan. Natural itxura izan behar du. Neure burua gehiegi ez desenkusatu. Deitorea ez puztu ere. Gogoan dut behin irakurritako saiakera, gezurtiaren estrategiari buruzkoa, Apuleioren *Urrezko Astoako* Hemo pertsonaiaren gezurren aztarna testualei, aporistikoei buruzkoa. Irakurleak jakin lezake, hitzei kasu emanez, iruzurretan ari dela Hemo, baina bahitzaileek ez dute asmatzen. Gezurra hitz kontu bat da, ez imintzio konturik. Ironia gauza bera (bere burua autoironikotzat aldarrikatutako idazle batzuei trufa edo buru-trufa aurkituko dien txerriarik ez da sortu, beraiek aitortu arte, testutik at, noski). Ironikoak nahita uzten ditu arrastoak. Gezurtiak, antza, nahigabe. Horrexegatik, idazketan arreta berezia jartzen dut. 'Kattalin maitea', hasi naiz.

Larunbatean etxean gelditu naiz. Eta astelehenean, ospitalean, odola atera berri, Kattalin topatu dut kafetegian (gertagariaren baitan zegoen, zer txandatan ari



JOSU SANTESTEBAN

Ironikoak nahita uzten ditu arrastoak. Gezurtiak, antza, nahigabe. Horrexegatik, idazketan arreta berezia jartzen dut. 'Kattalin maitea' hasi naiz



irudia:

Antton Olariaga

zen, erizain egiten baitu lan). Festan oso ongi pasa zutela esan dit, kristoren parranda, faltan bota nindutela, ea ni zer moduz Logroñon. Irudipena izan dut tonu berezian, burlaizez, galdetu didala. Susmorik ote du?

Kontatu diot *Actual* jaialdia zela-eta kudeaketa kontu batzuk konpontzera joan behar nuela, kultur hornidurarenak eta bide batez Micah P. Hinson-en kontzertura gelditu nintzela bertako lagun batzuekin. *Sin más*. Buelta bat eman genuen lehenago, bai. Laureal kalean *txanpi* tapa ospetsuak dastatu. Batek *Alcampo* supermerkatuan aurpegiko krema batzuk erosteko aprobetxatu nahi zuen, urte partikuladunak, ononak, oso merke (bederatzi eurotan!) saltzen dituztenak; dermatologoek ere gomendatzen dituzte. Gehiegi hitz egiten ari naizelako sentsazioa dut baina Kattalin da erasaten didana. Espolón Pasealekuan izan al naizen ere galdetu dit. Bertan ateratako argazki bitxi bat (Francoren zaldiaren barrabilei egina) erakustekotan egon naiz baina mobila etxean utzi dut. Irribarre maltzur batez, Ander ez ote dudan Logroñon ikusi galdetu dit. Bera ere hara joan zelako larunbatean, egun pasa eta kontzertu berera. Aztoratuta (zer esan orain?), ezetz erantzun diot. Zer dela-eta atera du orain Anderrena? Tranpa al da? *Farol* bat? Zer demontre ari zen Ander Logroñon?!

Kontzertura berandu heldu nintzela, eta hiritik gehiegi ibili ere ez, azaldu arren, Kattalinen itxurazko ez sinetsia handituz doa. Zer esango ote zion Anderrek? Neure burua gezurtatzen ari naiz?

Azkenik, tortura honekin amaitzeko, bide laburrena hartzea erabaki dut:

"Gezur gehiagorik ez, Kattalin. Zerbait aitortu behar dizut."


"..."

"Logroñon... zera... Ander eta biok... elkarrekin ibiltzen hasi gara".

"Ez zenuen esan beharrik. Berak dagoeneko kontatu dit". ■

Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua



Hego hemisferioan izandako lan bidaietan, bost urtetan zehar hurbileko lankideentzat idatzitako testu laburren bilduma da.

Hondartzan bildutako egur puska, harri eta itsas-hondakinak bezalako zerbait dira... "Eta etxera daramatzazu, batzuk bakarrik. Ez dute areetan zegoena errepresentatzen. Ez dute hondartzan gertatutakoa biltzen. Halaxe dira testu pusketok, lagunentzat tarteka bildutako zatiak".

Kulturgintza

IRENE ANTÚNEZ



Txokorik gabe, hutsune erraldoia Iruñeko euskal kulturarentzat

Aurten hamabost urte beteko ditu Erraldioen Txokoa kultura gunek. Hamabosgarrena eta, antza denez, azkena. Euskaraz eta euskal kulturaren inguruan Iruñeko Udalak antolaturiko programazioaren egoitza nagusi bilakatu da azken hamar urte luze hauetan. Euskaldun eta euskaltzale askoren bilgune hau desagerturik, euskarazko ekitaldiak hirian zehar hamaika aretotan barreiaturik geldituko direlako susmoa dago.

REYES ILINTXETA

1996KO MAIATZEAN zabaldu zen gaur egun Erraldioen Txokoa izenaz ezagutzen dugun kultura gunea. Iruñeko Alde Zaharreko Descalzos kalean zegoen Karmeldar Oinutsen komentua izandako eraikina berritu zuten Udalaren Eskola Tailerreko ikasleek, artean zertarako erabiliko zen argi ez zegoela.

Valentín Redín, antzerki zuzendari eta egile ezaguna, eta garai hartan Udalaren Kultura Zuzendaria, izango zen toki berriaren etorkizuna erabakiko zuena, neurri handi batean. Udalaren Kultura Arloa hango bulego berrietara eramateaz gain, itxitura mugikorrez estalitako patio zabala prestatu zuen Iruñeko

Konpartsako Erraldoi eta Buruhandiak han gordetzeko asmoz. Hortik heldu zaio izena. Inoiz iritsi ez direnak, ordea, kartoizko erraldoiak izan dira, haiek autobus geltokia izan baitute beti gordeleku: 2007ra arte geltoki zaharra, eta orduz geroztik, berria. Halere, ezin esan toki honek tamaina handiko bizilagunik ez duenik: Udaletxearen etxaurretik kendu zituzten harrizko bi hercules handi, apaingarri paratu zituzten txokoan orain dela lau urte.

Erabilera

Lehenbiziko urteetan, CDNko Javier Chorraut alkate eta Joaquín Pascual sozialista kultura zinegotzi zirela, aretoa hiritarren ekimenei irekia egon zen. Hau da, edonork antolatutako jarduerak egin zitezkeen bertan. 1999an, aldiz, UPNren izenean Yolanda Barcina alkate postura iritsi zelarik, bide hori moztuta gelditu zen. Hortik aurrera Udalak berak antolatutako programazioek baino ez zuten izanen tokia areto honetan. Horrela, eta poliki-poliki, Euskara Zerbitzutik bideraturiko kultura jarduerak nagusitzen joan ziren bai patio-ko eszenatokian, baita lehen solairuko hitzaldi aretoan ere.

2009an erabilpen berria onartu zuten: azken agur zibilen bilkura bertan egitea erabaki zuen Udalak, baina denbora tarte honetan soilik bitan erabili izan da zeregin horretarako. Horieta-ko bat Pablo Antoñana idazlearen agur ekitaldia izan zen.

Nafarroako Museoaren handipena

Erraldoien Txokoaren balizko desagertapenaren arrazoi nagusia Descalzos kalearen beste muturrean bilatu behar da. Han kokatua dagoen Nafarroako Museoa handitzeko proiektua abian da. Joan den urtean Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak protokolo bat sinatu zuten museo honetan Arte Garaikide areto berria zabaltzeko. Era honetara hasiko dira gauzatzen duela bi urte Juan

Ramón Corpas Kultura kontseilariak Legebiltzarrean aurkeztu zuen Arte Garaikidearen Sustatze eta Garatze Plan Orokorra. Plan horrek proposatzen du 5.000 metro koadroko eta hiru solairuko eraikin berria egitea egungo museoaren aldamenean.

Mercedes Jover, Nafarroako Museoko zuzendari berriak azaldu duenez, oraindik hausnarrean ari dira gai horren inguruan, baina “aukera paregabea izanen da museoak dituen arte garaikide lan garrantzitsuenak erakusteko”. Zuzendariaren ustez proiektua oso egokia da kokapena ezin hobea delako, Iruñeko bihotz-bihotzean.

Arte Garaikideari buruz, Nafarroako Museori maiz egiten zaion kritika da aldi baterako erakusketak urriak direla eta bilduma iraunkorrak zendutako artisten lanak soilik biltzen dituela. Mercedes Jover zuzendariak argitu du irizpide hori duela zenbait urte onartu zela “toki faltarengatik, hain zuzen ere”.

Gizartearen eta bereziki artisten aldetik zalantza eta kezka asko plazaratu dira aspaldi Arte Garaikidearen inguruan. Iñaki Arzo, artista eta ikerlariak Nafarroan “hogei urteko atzerapena” daramagula dio. Era berean, plangintza berriaren inguruan zuhur ageri da: “Hemen Arte Garaikidearentzako areto sare bat osatzeaz hitz egiten da, baina konektatzeko nodoak falta dira”.

Artista eta talde askok eraturako Artearen Plataformak joan den abuztuan eginiko diagnostikoaren arabera, Nafarroan egitura

falta nabaria da. Arlo pribatuan 2009an sei galeria desagertu ziren, haien artean beterranoena, Pintzel, eta gazteena, Reciclarte. Gaur egun, bat baino ez da gelditzen artearen eremu honetan lanean: Moisés Pérez de Albéniz. Alor publikoan ez dago Arte Garaikidearentzako gune propiorik eta deskordinazioa da nagusi.

Artegile hauek adierazi dutenez, kultura-etxeetan egiten diren ekimenek bertako sortzaileen lana dute oinarri nagusiki eta udal aretoetako arte garaikide erakusketek, “dibul-

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Goian Erraldoien Txokoa jendez mukur, Pablo Antoñanari azken agurra emateko ekitaldian. Behean Bixente Martinez, Natxo de Felipe, Niko Etxart eta Xabier Amuriza, areto horretan antolatutako mahai-inguru baten aurretik.

LANDER FDEZ. DE ARROYABE / ARGAZKI PRESS



Kulturaren erraldoiak, Erraldoien Txokoan

Atzera begira jarrita, zalantza sortzen da, Descalzos kaleko eraikina azkenean ez ote den benetan erabili erraldoiei ostatu emateko. Hona hemen, urteek utzitako kultur uzta oparoa.

Jardunaldi eta zikloak: “Behe Nafarroara hurbilpen saioa kulturaren bidetik”, “Euskara euskaroen garaian”, “Euskara eta hizkuntza erromantzeak”, “Arteaz gozatu eta ulertzeko”, “Euskal literatura”, “Iruñea historian zehar”, “Done Jakue Bidea Nafarroan”, “Lauaxeta, jaioztatik 100 urte”, “Kixote, 400 urte”, “Pío Baroja: 50 urte”, “Alexander Tapia Perurenari buruzko zikloa”, “Joan Perez de Lazarragari buruzko zikloa”, “Humboldt, Menendez Pidal eta Arturo Campionen inguruan: ernazimendua eta nazio identitate berrien sorrera”.

Hitzaldiak: Kepa Altonaga, Antton Luku, Jose Angel Irigaray, Koldo Izagirre, Castillo Suarez, Pello Salaburu, Jokin Muñoz, Jon Maia, Txomin Peillen, Joxemiel Bidador, Aingeru Epaltza, Roldan Jimeno, Anjel Lertxundi, Kirmen Uribe, M^a Jose Olaziregi, Bixente Serrano Izko, Caroline Phillips, Andoni Egaña, Jose Ignazio Ansorena, Iñaki Perurena, Miguel Ángel Lotina, José M^a Satrustegi, Juan San Martín, Maialen Lujanbio.

Musikariak: Ruper Ordorika, Pier Paul Berzaitz, Rafa Rueda, Maddi Oihenart, Petti, Josetxo Goia-Arribere, Jabier Muguruza, Mikel Markez, Kerobia, Joseba Irazoki, Karidadeko Benta, Maialen Errotabehere, Antton Valverde...

gatiboekin” txandakatu beharra izaten dute. Bestalde, Oteiza museoa, aitzindaria izan zitekeen gune garrantzitsua, Jorge Oteizaren lanari eta garaiari mugatuta gelditu da; eta Uharteko Arte Garaikide Zentro berria hutsik dago. Zentro hau orain berriki Nafarroako Gobernuaren eskutara heldu da, Uharteko Udalak ezin zuelako kudeatu. Urte gutxian aldaketa ugari eta sakon izan ditu eta orain birdefinizio unean dago, zuzendari berri baten zain. Iruñerriko Uhartan berean Buldain Fundazioaren museoa ere badago, hau ere bere kabuz lanean.

Nafarroako Museoarena ez da, halere, orain bidean dagoen arte mota honi loturiko gune berri bakarra. Opuseko Nafarroako Unibertsitatea bere museoa zabaltzekotan da, Huarte familia dirudunak haiei emandako arte bilduma hartuko duena.

Haur Eskolaren leku aldaketa

Aurreikusia dagoen egitasmoaren arabera, Museoaren aldamenean eraikin berria egin ahal izateko beharrezkoa da bertan dagoen haur eskola tokiz aldatzea. Nuestra Señora de los Ángeles haur eskola, Nafarroako Gobernuarena, Alde Zaharrean dagoen bakarra da.

Gaur egungo patioa haur txikientzako eskola bihurtzeak ez dirudi lan erraza, begi bistan, bederen.

Alfredo Hoyuelos, Nafarroako Unibertsitateko irakasle eta 0-3 Hezkuntzaren Aldeko Nafarroako plataformako kideak azpimarratu duenez, legea argia da eta eskakizun tekniko zehatzak bete behar dira haur eskolak antolatzeko. Honez gain, Iruñean haur eskola publiko gehiago behar direla azpimarratu du. “Publikoak eta kudeaketa publiko dutenak”, zehaztu du. Euskararen presentzia ere handi-

tu beharko zen, argi eta garbi. Egun hamahiru udal haur eskola publiko daude hirian 1.111 ikaslerekin ikasturte honetan, eta beste bost Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate Sailaren menpe, 332 ikaslerekin. Horiatarik hiruk, berrienek, gaztelania-ingelesa eredu eskaintzen dute eta soilik bik euskarazko irakaskuntza. Bi horiek, gainera, auzo berean, Txantrean, daude kokaturik. Desoreka handia alde guztietatik. Erraldoien Txokoan kokatu den eskolak zer hizkuntza-eredu eskainiko duen ez da ezagutzera eman orain arte, baina azken urte hauetan ingelesaren aldeko Udalaren apustua agerikoa da.

Etorkizuna?

Neguan aterpean, berogailuen arrimora, eta udan, gaineko manparak irekirik, izarren azpian, azken hamarkada honetan aunitz dira Erraldoien Txokoan gozatu ahal izan ditugun hitzaldi, kantaldi eta antzerki saioak (ikus orrialde honetako koadroa). Udalaren Euskara Atalak antolatutako ekimen hauen antolaketan, hainbatetan, beste zenbait erakundek ere esku hartu izan dute, Nafarroako Ateneoak edota Bertsolarien Lagunak elkarteak, besteak beste.

Hemendik aurrera programazio horiekin zer gertatuko den ezin jakin. Hiriko auzo desberdinetan Udala zabaltzen ari den Civivox izeneko guneen sarean euskara erabat bazterturik dago, Iñaki Azkona, Udaleko euskara teknikariak behin baino gehiagotan salatu duenez. Urtetan emeki-emeki mamituz joan diren kultur bide hauek ezabatuko al dira, egoitza fisikorik gabe?

Domino fitxa ilara honetan erortzen azkena euskararen inguruko programazioarena izanen da, antza denez. ■

Musika

Iaz disko asko... eta erdaraz (zenbait burutazio ingelesez kantatzeko hautuaz)

Harrob!a Lantzen-ek eta Entzun!-ek elkarlanean osatu dute 2010eko Euskal Herriko diskogintzaren erretratua: Gureando!nu10 izeneko dokumentua sarean dabil eta zenbait datu interesgarri eskaintzen ditu. Adibidez, 300 lan berri baino gehiago atera zirela iaz eta horietako gehienak erdaretan grabatu zirela.

GORKA BEREZIARTUA

ASKO ZABALTZEN ari den joera. Eta bereziki kezkarria iruditzen zait hainbat taldek ingelesez kantatzeko egin duten hautua, baita erabili dituzten argudioak ere (ikus duela gutxi, ARGIAren 2.261. zenbakian, publikatu ziren hiru elkarrizketak). Zenbait estilok ingelesez hobeto ematen dutela belarrira, hori da gehienetan errepikatzen dena. Baina joera orokortzen hasia denean, itsu beharko genuke aukera estetikoa bakarrik ikusiko bagenu. Eta gor, fenomeno sozial zabalagoen oihartzuna ez bagenu entzungo.

Esango nuke faktore ugari ekarri gaituztela egoera honetara eta horien artean ez dela txikiena 1990eko hamarkadan ezker abertzalearen inguruan egituratu zen kontrakultura musikalak behera egin izana. Negu Gorriak buru zuen belaunaldiak asmatu zuen jatorri aniztasuna eta euskaltasuna elkartzen, militantzia uztarri. Mundu osoko musika estiloak nahastuz eta euskaraz kantatuz hainbat taldek lortu zuten, 1980ko urteetatik zetorren “punk vs. gizartea” eta “euskal herritar vs. espainiar” dikotomieie eustea; baina baita, Jacqueline Urla antropologoak dioen moduan (*We are all Malcolm X! : Negu. Gorriak, Hip-Hop and the basque political imaginary*), “euskara vs. estatuko hizkuntzak” dikotomia sortzea ere, eta oposizio sinboliko horren bidez munduko beste hainbat askapen borrokarekin zubilana egitea (Negu Gorriak-ek James Brownen “*say it loud, I’m black and I’m proud*” ezaguna “euskalduna naiz eta harro nago” bihurtzea izan liteke estrategia kultural horren erakusgarri nagusia).

Adi, hala ere, euskara-estatuko hizkuntzak dikotomia planteatzen baitu Urlak, hau da, “euskara vs. espainola” eta “euskara vs. frantsesa”; eta azpimarratzen du Negu Gorriaken diskoak ez direla elebakarrak; ingelesak, besteak beste, leku garrantzitsua duela. Baina ez edozelan sartuta: “Negu Gorriaken obran aurkitzen dugun ingelesak beltzen ahots hori ekartzen du gogora, marjinazio sozio-kulturalaren esperientzia”.

Hau da: mezu politiko jakin baten inguruan artikulatu daitezkeen hizkuntzak erabili zituzten Abregok, Arkarazok, Kazalisek eta Muguruza anaiek”.

**Faktore askok eragingo zuten
Euskal Herriko musikariak
ingeleza aukeratzerako orduan;
horietan ez da txikiena
ezker abertzalearen inguruko
kontrakultura musikalak
behera egin izana**

Pasa dira garai haiek eta bi ondorio utzi dituzte gutxienez. Bat: ezker abertzalearekin identifika daitezkeen engaiamendu politikoa ez dago aurreko hamarkadetan bezain modan. Bi: euskaltasunaren aldarrikapen esplizitua klaxe bihurtu da (talde konprometituenez ere, nekez abestuko dizute egun “euskaraz eta kitto” edo gorago aipatutako “euskalduna naiz eta harro nago”-ren tankerako

ezer, hain modu agerikoan behintzat; eta hori gertatzea ona da, nire iritziz, zimendu batzuk jarri direla erakusten duelako). Hirugarren bat gehitu behar zaie aurrekoei: Internetekin izugarri areagotu dela mundu anglosaxoian produzitzen den musika eskuratzeko aukera. Doan.

Hiru horien konbinaziotik zabaldu da, nire ustez, ingelesez kantatzeko hautua. Beste hainbeste mugimendutan laburbil daiteke prozesua: 1) “Ez dugu euskaldunak garela aldarrikatu behar mikrofono aurrean jartzten garen bakoitzean, ezta inolako mezu politikorik eman behar ere. Euskaraz egitearekin nahikoa da”. 2) “Eta euskaldunok munduan gaude, gure tradizio kulturala ez da hemen sortua bakarrik, ingelesezko musika entzun dugu betidanik, zergatik ez ditugu ba estilo horiek jorratuko?”. 3) “Beraz, behin gure euskaltasuna eta mundutasuna inplizituki onartuta, ez dago problemarik ingelesez kantatzeko ere. Gainera, errazagoa da, horrela entzun dugulako beti eta musika hori euskarara egokitzeak, lana eskatzeaz gain, ez du estetikoki emaitza bera ematen”.

Pertsonalki, bigarren punturaino bakarrik nago ados. Autoafirmazio espizituari uko egitea euskaltasunaren barrutik hartutako erabakia da. Bigarren mugimendurekin, nolabait esateko, mundua ekartzen dugu gurera (edo behintzat mundu honetako polo dominatzailean dauden adierazpen kulturalak “etxekotzen”, Urlaren hitzetan esateko). Hirugarrenarekin ordea, euskal musikariak dira beraien zentroa desplazatzen dutenak, gainditzen dituen erakarpen-

**Zabiltzan harri
hori, atera
mingaina...
baina euskaraz!**

indarraren menpe jarritz. Euskaraz kantatuta bertako eszenaren zentralitatea gertuago izango luketen artistek, euren burua musika ingelesaren periferian kokatzen dute, bazterreko bihurtzen dira. Eta joera horren multiplikazioak eszena lokal osoa bihurtzen du bazterreko: Euskal Herriko talde gehienek ingelesez kantatuko balute, zer lirateke hemengo taldeak munduko musikaren planoan? Auzo txiki marjinal bat, nire irudiko.

Norbaitek esango du ez duela zertan, Delorean zarauztarrak, adibidez, *Pitchfork*-en iazko 50 disko onenen zerrendan agertu zirela. Salbuespen batzuek araua konfirmatu besterik ez dute egiten: begiratu bestela, zerrenda horretan zenbat talde diren herrialde ez-anglosaxoiak. Musika jarduera garrantzitsua da, besteak beste, kantak entzunez osatzen dugulako pertsonok gure imaginarioa; eta ingurukoekin gure gustuak partekatuz ere eraikitzen da gizarte baten iruditeria amankomuna. Bestelako jarduera publikoetan bezala, euskaraz egote hutsak hizkuntza prestigiatzen du, posible dela erakusten du, ez dela ezinezkoa eskandinaviar kutsuko rock&rolla euskaraz egitea, ezta hip-hop, dub-a, grindcorea edo indie-a ere. Ingelesez eginda berriz, euskaraz ematen du ez-gai, problema, izatekotan, hiztunena denean.

Ez al gara kapaz gauza batzuk euskaraz egiteko? Saiatzen al gara? Saiatuko? ■

argia.com Artikulu honetan aipatutako zenbait erreferentziatara loturak aurkituko dituzu Boligrafo Gorria blogean, baita hainbat lagun iritzi-elkartruke bizia ere: Inaxio Esnaola, Beñat Sarasola, Jon Eskisabel, Asier Basurto, Ibon Rodriguez...

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Liburuak

KRITIKA

Sunset park. Paul Auster.
Alberdania. 272 orrialde. 19,50 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez



Gure bizitzako urterik txarrenak?

BROOKLYNGO EROKERIAK (*Brooklyn Follies*, 2006) eleberriaren bitartez, 2001eko iraileko gertakariekin amaituko zen bizimodu baten lehen zertzeladak aurreratu zizkigun. Eleberriaren nolabaiteko amaiera “zoriontsuarekin” batera, zabalik utzitako proiektu baten hastapena ematen zuen irudi lauso hura, I-11ren osteko mundua irudikatzen duen benetako koadroa bilakatu da *Sunset Park* lanean. Ez da gizartearen analisi deskriptibo soila Austerrek egiten duena baizik eta, beti ere gizakia ardatz, bere pertsonaiek jasan eta bizi dutenetik abiatuz, AEBetako egoera sozio-politikoaren erretratu gaurkotua eskaintzen du. Obamaren presidentzia hautatu berria, Irakeko gerraren iraupenak eta horrek eragiten duen bikoteen arteko desesperazioa, 2008ko blokeo ekonomikoa, ordaindu ezinezko kreditu eta alokairuek kalean bizitzera behartutako milaka familien sufrimendua. *In the Country of the Last Things* (1987) eleberriaz geroztik, kapitalismo bortitz krudelenaren ondorio sozialak islatzen duen lanik ez dut gogoratzen Austerrren ibilbide literarioan. Eta oraingoan ere, pertsonaiek egunerokotasunean bizirauteko egiten dituzten ahaleginetan, etorkizun itxaropentsurik eskaintzen ez duen mundu garaikidearen panorama ezkorra da nagusi.

Sunset Park New Yorkeko auzo txiroetako bat baino askoz ere gehiago da; “Munstro ero eta suntsitzaile” (153. orrialdean) horretan txertatutako mikro mundu bat. Bertako etxe abandonatu batean, okupa bizi diren lau gazteen bizitza hondatuaren gordelekua da. Iraganeko gertakari batek ihes egitera bultzatuta, sorterrira itzuli berri diren izaki zaurituak dira. Idazlearengan ohikoa izaten den kontakizun gainjarririk gabe, ongi bereizitako atalez atal, pertsonaia bakoitzaren iragana zabalduz doa. Horrela gorpuztu egiten da hain ezaguna zaigun unibertso austeriarraren konstelazio sare tipikoa: Brooklynen girotu izana, familia barruko tragediak, giza-kiaren ahultasuna gogorarazten duen ustekabeko heriotzaren presentzia etengabea, erruaren zama, maitasun erlazio ustelduak eta, noski, testuartekotasun izugarri aberatsa (beisbola, zinea, literatura). Hankaz gora dagoen mundu batean, borrokarako pizgarririk gabeko errealitatean, William Wyler-en *Gure bizitzako urterik onenak* (*The Best Years of Our Lives*, 1946) filmaren presentzia obsesiboak gobernatzen du. Iraganeko gerra batetik eratorritako soldaduen antzera, etorkizunean sinesterik ez duen gazte talde baten erretratu ezkor aski exageratua iruditzen zait.

Inork ez zuen esan bizitza erraza zenik, baina beste topiko bat gaineratzearen, esperantza da galtzen den azkeneko gauza. Eta literatura existitzen den bitartean topiko horrek bizirik dirau. ■

Kultur-aniztasuna eta giza-eskubideak

Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak plazaratu du *Giza Eskubideak testuinguru kultur-aniztatan* izeneko liburua. Eduardo J. Ruiz Vieytez eta Gorka Urrutia Asua izan dira liburua-aren editoreak eta liburu barruan hainbat egileren ekarria bildu dute. Besteak beste, Francisco Javier Ansuátegui Roig-ek uni-

bertsaltasunaren eta aniztasunaren arteko talka aztertu du; María José Añón-ek erantzukizun publikoaren gaia ekarri du erdigunera; Roberta Medda-Windischer-ek tradizioz banatutako gizar-teak izan ditu mintzagai eta Marie-Claire Foblets-ek familia-zuzenbideari erreparatu dio. ■



Giza eskubideak...
Batzen artean.
Deustuko
Unibertsitatea.
184 orrialde.

Eliza bat ala eliza asko?

Hemen erlijio gogoetarako aldizkariak galdera hori dakar azkeneko zenbakiaren azalean. Eta planteamentu orokor horretatik kontu zehatzagoetara jo dute aldizkari barruan hainbat egilek. Felix Placer-ek eliza katolikoaren barruko batasun-ereduez idatzi du, Angel Mari Unzuetak eliza barruko prozedura demokratikoak zilegi eta posible ote diren galdetu du; Xipri Arbelbidek *Tradizionalisten arazoa* izeneko artikulua plazaratu du; Joseba Intxaustik Euskal Herriko eliz erreformak izan ditu hizpide; Lidia Rodríguez-ek Euskal Herriko protestantismoaz egin du bere ekarpena; Tomás Murok ekumenismoa hartu du ardatz eta Marije Gerra Jesusen bakea berre-raikitzeaz aritu da. ■



Hemen.
Batzen artean.
Frontera.
127 orrialde.
29 euro (urteko harpidetza).

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Rat-Zinger.
Rat-Zinger.
Maukamusik.
Iraupena: 39'39".
10 euro.

Estoldetako amorrua gurpil gainean

EKINTZA-GUNEA Bilbon duen talde oldarkor hau musikagintzan gaizkile gisa luzaroan ibilitako kideek osatzen dute. Motörhead-en traza handia duen motozerrako punk-rocka egiten dute, Eskandinaviako kutsuko gitarra bizi-biziek, baina badira eskola zaharreko hardcore eta metalaren oinarri handiak dituzten piezak ere, iraganeko taldeetan sonoritate horiek ere landu izan dituztelako. Hitzei dagokienez, izugarri oldarkorak dira, amorru ikaragarria dute,

guztiari eta guztiei eraso egiten diete inongo gupidarik gabe. Gainera, Podriren ahotsak irmotasun handia dauka eta amorru horri batu behar zaio umore beltz puntu nabarmena. Bestalde, gaztelaniaz idazten badute ere, euskarazko pieza bat grabatu dute Fermin Muguruzarekin; eta Komako Brigiren kolaborazioarekin, Quemando Ruedas-en *Mi navaja*.

www.myspace.com/ratzingerbilbao

Rat-Zinger

«Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna»

Anarko, Sucio Sistema, Pilt, Zer Bizio! eta beste talde asko daude zuen curriculumetan. Zerk batu zintuzten proiektu honetan?

Pinky eta Podrik Anarkon bat egin zuten eta berau desagertu zenean, aspaldi idatzita zeuzkaten kanta jotzeko proiektu bat sortzea erabaki zuten. Berehala Javi batu zen eta martxan jarri zen guttia.

“Rat-Zinger hil nahi dut gurutzadetak sarraskiengatik, kanpaikaden hotsagatik”. Hitzei amorru handia dute, baina baita umore beltza ere...

Maitasun kanta gehiegi dago. Guztiok bat egin genuen zerbeit zuzena egiteko asmoan, eta biolentzia mental eta umore beltz handia dugu. Gauzak esateko oso modu aproposa da; eta era naturalean irteten zaigu.

Gaur egungo talde gutxiak erakusten dute halako kale-

ko izaera... Horren adibide da, besteak beste, Quemando Ruedas bertsioneatzea.

Dagoeneko ez gara gaztetxoak eta kalean hazitakoak gara; hitzetan antzematen da hori. Quemando Ruedas taldeari dagokionez, guretzat Euskal Herrian izan den talde onenetarikoa da eta ez da inoiz nahikoa errebindikatu.

Punk-rock gitarreroa eta Motörhead ildoak oso presente daude zuen musi-

kan. Ez duzue saihesterik hartu nahi, bide zuzena baizik?

Saihestezina da musika eraginak izatea, baina gustatzen zaiguna egiten dugu, besterik barik. Hala ere, rock-and-roll makarraz hitz egiten badugu, Motör aipatu beharra dago.

Ez duzue jainkoan sinisten, ez duzue idolorik rockean eta ez zarete giza-kiaz fio. Zertan sinisten duzue?

Norbera nor den jakin eta onartzean bakarrik sinisten dugu.

AITORTXU



Ez da ohikoa Fermin Muguruzak gaur egun Euskal Herriko taldeekin kolaboratzea. Zergatik aukeratu zenuten bera?

Fermin batez ere lagun handia da. Anarkok The Clashen omenezko kanta egiterakoan ere bere laguntza izan genuen. Fermin makina bat da eta oso pozik gaude laguntzeko denbora tarte hartu ahal izan duelako. ■

Ezpalak

JON TORNER

‘Perurena’ film dokumentala hilaren 10ean estreinatuko dute

INAXIO PERURENA Leitzako (Nafarroa) harri-jasotzailerari buruzko *Perurena* film-dokumentala hilaren 10ean estreinatuko dute Donostiako Antzoki Zaharrean, 20:00etan. Jon Garañok zuzendu eta Moriartik eta ETBk ekoitzi dute, eta Perurena aita-semeen arteko harreman estuaren inguruan mintzo da. Inaxio Perurena harri-jasotzaile gaztea errekor berria lortu nahian dabil: 300 kiloko harria altxatzea. 1987an bere aita, Iñaki Perurena ezaguna, izan zen lehena harri hori altxatzen...

Filmari buruzko informazioa: www.moriarti.com.

● **Olivier van der Zee** zinema zuzendariak **Orreagako guda irudikatzen duen 778. La chanson de Roland** dokumentala egin du. **Deian** elkarrizketa egin diote: «Esperientziarekin gauzak askoz hobeto egiten dira eta hori argi geratzen da guztietan. Izan ere, zinema diru gutxiarekin egitea da, agian, herri bateko jaiak antolatzea baino 2.000 bider nekezagoa, arazo txiki eta oso handiak etortzen baitzaizkizu (...) Dirua aitzakia da, oso beharrezkoa da baina lortu behar bada lortuko da. Behar bada urte batean egin beharrean bi urtetan altxatuko duzu proiektu bat, baina indarra edukitzea eta gogoia izatea, hori da inportantea».

Filmaren webgunea: www.lachansonderoland.com.



Alaitz Rekondo izango da Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakari berria. Manolo Arozenaren lekukoa hartuko du lesakarrak. Magisteritza ikasketak egin ditu Rekondok, Heziketa Berezia eta Entzumen eta Hizkuntza espezialitateetan. Gai-jartzaile lanean Nafarroako txapelketan hasi zen, eta Txapelketa Nagusian bigarren aritu zen 2009an. Bortzirietako bertso-eskolan ibilitakoa da.

Santi Leone idazle iruindarrak euskaratuko du Mario Vargas Llosa nobel saridunaren *Pantaleón y las visitadoras* eleberria, Jokin Zaitegi bekari esker. 1973an plazaratu zuen Vargas Llosa aipatu liburua: Oihanen dauden Peruko Ejertzitoko kideen eta euren kuartelera doazen prostituten (*visitadoras* deitzen zieten) arteko harremana du ardatz istorioak. Elkarrek argitaratuko du aurten euskaraz.

Karlos Santisteban (Karrantza, Bizkaia, 1960) idazleak irabazi du Blas de Otero poesia lehiaketako euskarazko saria, *Oroimenaren lorratzak* lanari esker. Bilboko Udalak eta Blas de Otero Fundazioak 2008an abiarazi zuten lehiaketa hori, herritarrak poesiarantz hurbildu eta Blas de Oteroren berri zabaltzeko helburuarekin. Gaztelaniazko saria Elena Roman Torresen *Esta dichosa ansiedad doméstica* lanak jaso du.

Joxe Arratibel idazle eta fraide beneditarra (Ataun, Gipuzkoa, 1923) urtarilaren 25ean hil zen. Haurtzaroan etxeko eta auzokoengandik ipuin zahar asko entzun eta ikasi zituen, eta Jose Maria San Sebastian Latxaga apaizak eskatuta, istorio horiek idazten hasi zen. Hainbat liburu ditu argitaratuak: *Kontu zarrak* (1980), *Mari Xor eta beste* (1986), *Dirua neurtzeko ontzia* (1986)... Azkena 2008an plazaratu zuen: *Izugarriak*.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Hau beste gauza bat da!

TOPIC txotxongilo zentroan (www.topictolosa.com) emanaldi on bat gozatzea baino askoz plan hoberik ez da egongo, neguko arratsalde baterako. Sartu gara urtarrilaren 29an, bi heldu eta lau umeak. Antzezlanaren frantsesa omen da, Théâtre pour deux mains taldearena, baina lasai, *Poligoniara bidaia* honetan ez omen dute asko hitz egiten. “Hobe, belarri pixka bat egin dezatela”.



Egurrezko oholtza pitzatu bat besterik ez eszenan. Grisez jantzitako gizon bat ateratu da. Ixiltasuna. Mantso mantso doa oholtzara. Pausa. Lurretik arotzen metro horietako bati tira dio, ahal duen goraino, besoa luza-luzatuta, eta bat-batean askatu du (sustoa). Pausa luuuzte bat... Hesteak harri ditugu lagunak eta biok (lau piztiak aspertzen badira akabola). Katxi-porretekin ohitutako haurren erantzunak beste aukera bat eman dio artistari. “Noraino iristen dira zinta horiek?” “Zergatik ateratzen dute soinuak?” “Zer egin nahi du horiekin?” “Niri beldurra ematen dit / ba niri ez!”. Oholtzako egurrezko pieza bat altxatu du, eta irudi jokoa hasi da. Begiak dituzten lauki batzuk marmarrean hasi dira. Haurrak barre eskandalosoan lehertu dira, ordurarteko tentsioa hausteko “nola hitz egingo du ba horrek! Lauki bat da eta!”. Lauki marmarti denen artean bat bultzatu dute (lauki “oso” izateko puska bat falta duena) eta taldetik erori da. Laguna eta biontzat magia da, nola arrai mugitzen dira zurezko lauki horren begiak, nola uztartzen oholean proiektatutako irudiak objektu errealekin? Haurrentzat ere badute indarririk bai eroritako lauki horrek, bai gainerako pertsonaiek: denak dira geometrikoak, eta irudimenaren esku geratzen da bakoitza zer den asmatzea. Bi hankako makila luze bat “jirafa dela!” dio batek, “zaldia!” ondokoak. Urpean dabilena, berriz, buzealaria da edo txipiroia edo txitxarea (bakoitzaren begien arabera). Hainbat abenturaren ostean, zirkoko eszenak publiko bero bero dela amaituko du obra: aurkezle berritsuaren esanetara, akrobatak lurretik ateratako zinta horietan behera dilindan jaitsiko dira (“eroriko da edo ez?”), eta musikaren erritmora txaloka ari gara denok. Lau kakanarruek saio osoa pasa dute “niri ez zait gustatzen... bai, bai, orain gustatzen zait” kritika eginez.

Irtetean pentsatu dut zerbait desberdina jaso dugula gaur. Haurrentzako obra gutxik jartzen gaitu publiko osoa burulanean, imaginazioa astinduz, interpretazio zehatzetatik libre, sentazioei adi. Haurrengan estimatzen ditugun gaitasun horiek aktibatuta. Artelan ederra izan da, bai irudiz, musikaz, ideiaz... Gaur dauden aukerekin, zer kultur eskaintza ematen diegu txikitatik? ■

Atxaspi Hotela



ametsetan bezala.

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

Gaia: Kantari gipuzkoarra

ESKAERA BURUTAPEN		GURTZA JASOTZEN DUEN IZAKI * ABIZENA		ANTZINAKO GERMANIAR		1500 ERRO- MATAR ERARA ZEIN TOKITAN		OINARRIZKO EDARIA NAHIA, DESIRA		GABON KANTA ELEKETARI (ALDERAN- TZIZ)		URTEAREN SEIGARREN HIL ADITZ-MOTA
				EMAITZAK, EFEKTUAK SILABA HINDUISTA								
ELEKTRODO NEGATIBO ELIZKIZUN						PARERATU ADITZAREN INFINITIBOA IODOA						
								POZKOR, ALEGERA ALUMINIOA				
GARAI, ALDI	KILOMETRO NABAR BIHURTU									ZINKA JAUZIKA, SALTOKA		
				GASTEIZEN URTERO OSPATZEN DEN ROCK FESTIBALA				SABELEKO ORBAIN * IZENA				POSIZIO
BARAZKI HOSTOTSUA SAILBURU (LABURDURA)												
		AZKENA ERORI ADITZAREN INFINITIBOA						HOLMIOA KOMUNIKA- BIDE MOTA			ENERGIA ZIMUR	
EUSKALTEGI SAREA * JAIO TERRIA				ETA ABAR (LABURDURA) NIORIOAREN SINBOLOA		ZAKUR ALDERDI KARLISTA		FLUORRA HELBURU, XEDE		...-TAK, ERLOJUAREN HOTSA		
										BELDUR BIZI ABEREAK UXATZEKO		
HILOBIAK EGURRA												
						GARBI, APAIN 500						
				BADAUKA				PILOTA-JOKO				



DANI BLANCO

Kike Amonarizen umorea

Azkarrak

AEBetako beltzen artean maiz kontatzen omen da txiste hau:


- Zergatik egiten dute korrika azkarrago beltzek zuriek baino?
- Motel guztiek espetxean amaitzen dutelako!

Sinagogan

Beltz bat errezatzen ari da sinagogan. Halako batean, bere atzealdean dagoen norbaitek galdera

egiten diola entzun du:

– Beltza izatea ez al zeneukan nahikoa?



THE DAILY RASH.COM

Soluzioa

E	N	O	A	K									
A	S	M	O	D	O	P	A	R	E	A			
Z	E	R	E	M	O	N	I	A					
U	N	E											
S	B	E											
E	A	R	E	N	T	E	R	I	A				
T	O	R	A										
Z	U	R	A										

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela. Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin Interneterako propio pentsatutako telebista saio bat egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea. Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eredueta erortzeko.



**telebista
saio
berria**

Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv



Osasuna

JABIER AGIRRE

Ez zaitzala estresak jan


ESTRESA OSO HITZ ARRUNTA eta ohikoa da gure inguruan. Gaur egun bizi dugun eguneroko erritmo azkarra dela-eta, biztanleen %84k aitortzen du bere bizitzan pasatu duela estres-aldiren bat edo gehiago. Gizonen kasuan %28k diote gertakari horiek aldian behin errepikatzen direla; kezkagarriagoa da emakumeen %40 inguruk bere egoera naturalizat definitzen dituztela estres-egoerak.

Estresa gorputzaren erreakzio fisikoa da, arriskutsutzat hartzen dituen egoeren aurrean gure organismoak ematen duen erantzuna. Erantzun horrek erreakzionatzen, erabakiak hartzen, aurrera egitzen eta abar laguntzen digu neurri batean. Baina epe laburrerako onuragarriak diren egoera horiek denboran zehar mantentzeak esfortzu handiegia dakar gorputzarentzat eta baita adimenarentzat ere. Osasun arazoak agertuko dira orduan, larritasun-maila diferentekoak: infekzioak gehitu egiten dira, sistema immunologikoak ez duelako modu eraginkorrean erantzuten; bihotzeko arazoak –miokardioko infartua, esaterako– izateko arriskua areagotu egiten da; insomnia edo migrainak agertzen dira; baita ere depresiorako joera, urdail-hesteetako arazoak, larruazalekoak, buru-soiltasuna eta abar.

Estresaren arrazoiak ugariak eta era askotarikoak dira, lan, diru nahiz familiako arazoekin lotua egon daitekeelako. Garrantzitsuena estresa garaiz detektatzea da, eta egoera horri erremedioa ahalik eta lasterren jartzea. Horretarako hainbat bide proposa daitezke:

- **Ariketa fisikoa.** Irtenbide egokia da, arazoa “ahaztu” eta adimena kezka horretatik deskonektatzeko modua ematen duelako. Igeriketa, aerobic-a edo dantza bera terapia eraberritzaile bikainak izan daitezke.
- **Elikadura.** Begi-bistakoa da urduritasun-aldi batean estimulatzailerak (kafea, alkohola, janari koipetsuak...) saihestea dela gomendiorik onena. Eta, aldiz, erlaxatzaile naturalak kontsumitzea komeni da: platanoa, brokolia, arbendolak edo gari-ernamuina. Baita infusio lasaitzaileak ere, noski.
- **Nola erlaxatu.** Erlaxazio eta meditazio-teknikak egokiak dira garai horietan, espezialisten eskutik ikasi eta praktikatzuz gero.
- **Terapia psikologikoa.** Botikak baino eraginkorragoa da estresa kontrolatzeko, egoerei aurre egin eta horiek maneiatzeko tresnak eskaintzen dizkiolako gaixoari.

Babeslea: iametza Interaktiboa



DRMIKEWELLNESS.ORG

77 sendagai susmopean Frantziako Estatuan

Osasun Segurtasunaren Frantziako Agentziak (AFSSAPS) adierazi du zorrotz behatuko dituela 77 medikamentu, arriskutsuak izan daitezkeen ala ez ebazte aldera. Azken boladan izandako zenbait eskandaluk bultzatu du AFSSAPS gardentasun handiagoa bilatzera. <http://ttiki.com/22773> (Frantsesez)

Omega-3 faltak depresioa sortzea erraztu dezake

Saguekin egindako ikerketa baten arabera, omega-3 motako gantz-azido gutxi jatea depresioa eta antsietatea agertzeko faktorea izan liteke. Gauza bien arteko harreman zuzena dagoen jakiteko, ordea, azterketa gehiago egin beharko dela ohartarazi dute ikerlariek. Herrialde garatuotan ez dugu behar beste omega-3 jaten, gogorarazi dute halaber. <http://ttiki.com/22774> (Frantsesez)

Genoma minutu gutxian

Garatzen ari dira, jadanik, pertsona baten genomaren sekuentzia minutu gutxian eta gaur egun baino askoz merkeago eza-gutzea ahalbidetuko duen teknologia. Horretan lanean ari den Britainia Handiko zientzialari taldeak esan du hamarkada bat beharko dela teknologia berria guztiz erabilgarri egoteko. <http://ttiki.com/22775> (Gaztelaniaz)

Unai Brea

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ibilbide toponimikoa

GARAI BATEKO itsasontzi bikainak egiteko, Ipinabarren basoetatik errioetako ontzioletara, gurdi motzek eta lerek harkaitzetan utzitako arrasto paraleloen ibilbidea hizpide nuen atzenekoan. Baita Ipinabar izena jasotzen duten eta neuk ezagutzen nituen toki urriak ere. Idatzi banuen idatzi nuen! Argitaratu aurretik irakurri duten lagunek euria siulaka ari duenean bezala parrastan bota didate ustez ipinabarretik datorren toponimo mordoak. Batean eta bestean izen honen peskizan gehiago sakondu ez izanaz damu naiz eta astinaldia eta errieta erretolika merezi nuen. Eta emaitza polita: Zeanuriko Ipiñaburu auzoa eta Ipiña Jauregia, Ugaoko Ipiña etxeak, Euskaltzaindiaren onomastika sailean bildutako Ipiña, Ipiñaugarte, Ipiñazar eta Ipiñarrieta abizenak, Sorluzeko Ipiñarrieta baserria eta Urretxuko Ipiñarrieta jauregia, Bergarako Ipiñarri eta Ipiñarriaga baserriak, Murgian Ipinabar, Zestoako Ibaña-



Amerikan ere bada. Hona Mexikoko San Luis Potosí hirian dagoen Ipiña eraikina.

rrieta, Iñabarrietamendi, eta... ipiñabar. Ibañetaraino ere joan zait bateren bat. Toponimiaza-leek badute, nahi izatera, zer eginga.

Ipinabarren hau behingoz amaitzeko ohartxo bat: ipinabarren inausketa otsailaren 20aren eta martxoaren 25aren artean egiten zen. Aparteko arrazoi bereziren bat izanez gero azaroran edo abenduan egin zitekeen, baina urte amaierako sasoi hori ez zen ez inolaz ere ohikoa. Lehen ere bazekiten bai zuhaitzak inauszeko, epaitzeko, garai onena izerdi berriaren etorrerakoa dela. Txoko honetan bertan Epaila Martxotzen ari ginela nioenak argia ikusi zuela urteak dira.

Aranokoa zen nik ezagutzen ditudan Ipinabar bakanetako bat eta handik heldu behar diot berriz landare ibilbide honi. Eta

toponimozaleekin ari garenez, hona nafar txoko honetan arreta erakartzen didan horietako bat: Amakalandarieta. Bai polita!

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zalantza bat daukat: piku arbola bati, adarrak kendu eta landatzeko, noiz eta nola egin behar dut? Mila esker. Nerea Larrañaga (Azpeitia).

Aupa Nerea! Ondo diozun eran pikondoa (*Ficus carica*) adarrak moztu eta lurrean sartuz ugaltzen da. Neguaren amaian egiteko lana da, lurra epeltzen hasi eta urte berriari ekiteko kimuak zabaltzear denean. Izerdi berri hau izango da itsasteko sustrai berriak emateko motorra.

Gustuko duzun pikuak ematen dituen arbolari metro bete inguruko adarra moztu. Aitzurrarekin zanga bat egin eta luze-luze bertan sartu, adarraren muturra arra bete inguru bistan utzita. Lurpean sartutako adar-begiek sustraiak emango dituzte eta bistan daudenek hostoak. Horra pikondo berria. Lehen udaran ura emanez lagunduz gero erraz itsatsiko da. Piku on!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Bizkaiko Etxe Merkeak



BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIAK UTZIA



INIGO AZKONA

Bilboko Torre Urizar etxe multzoa eraiki berritan (ezkerrean) eta gaur egun (eskuinean). Etxeok Ricardo Bastida arkitektoak diseinatu zituen 1919an. U itxurako blokeak eginez, berdegune zabalez hornitu zuten auzunea, langileen baldintzak hobetzeko.

MADRIL, 1911. Espainiako gobernuak Etxe Merkeen Legea jarri zuen martxan, industriagune nagusietan bildutako langileen etxebizitza baldintza kaxkarrak hobetzeko asmoz eta XIX. mendearen amaieran Britainia Handian nahiz Frantzian sortutako legeak eredutzat hartuz (funtsean, kopiatuz).

Penintsulako eskualde industrializatuenetakoa izanda, langileentzako etxe merke eta duinen premia handia zen Bizkaian, Bilbo inguruan. Higiene arazoak, pandemiak, zerbitzu gabezia eta toki falta ziren nagusi. Gainera, lurralde malkartsu horretan orube lauak industriak hartzen zituen eta horrek etxebizitzaren arazoa areagotzen zuen. Ondorioz, gatazka sozialak sortu ziren eta, esaterako, 1890eko meatzarien greban, eskakizunetako bat etxebizitza baldintzak hobetzea izan zen.

Langileek etxeak nahi zituzten, burgesiak ez zuen gatazkarik nahi eta, horrenbestez, Bizkaiko erakundeak eta enpresa pribatu nagusiak ez ziren Madrildik legea noiz etorriko zain geratu. Hala, 1909an La Kruz auzoko blokeak eraikitzeke lanak

diruz lagundu zituzten. Hileko hamabi pezetako errentaren truke, langileek bestela inolaz ere ordaindu ezin zuten etxea zeukaten: bizpahiru gela, iturriko ura, dutxa, komuna, sua egiteko txapa....

Legearekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak ekimen horiek sustatzea erabaki zuen, orduko Caja de Ahorros Vizcaínak bere gain hartu zituen eraikinen finantziazioa eta langile familien aurrezkien kudeaketa, kooperatibak sortu ziren eraikuntza lanetarako eta garaiko arkitekto ospetsuenek estilo neoeuskalduneko nahiz ingeleseko etxeak eta barrakoi lauak diseinatu zituzten.

Bizkaia, bere etxe merkeen irudia 1911-1936 liburuan bildu du Ana Julia Gomez arte historialariak etxeon historia eta izen bereko erakusketa ere ikusgai dago otsailaren 26ra arte Bizkaiko Foru Liburutegian.

Gerra piztu bitartean, orotara 57 etxe merke multzo eraiki zituzten hamabi udalerritan. Eta merkeak izateaz gain, kalitatezkoak ere izango ziren, sei izan ezik beste guztiak zutik baitaude gaur egun.

Arrastoak

Ampereak Internetera iritsi dira

ANDRÉ MARIE AMPÈRE (1775-1836) ikerlari frantziarrak (argazkian, Lyonen dagoen haren estatua), ilustratua izanik, matematikak, optika, mekanika, kimika eta ezagutzaren filosofia jorratu zituen, korronte elektrikoaren intentsitatea neurtzeko unitateari izena

emateaz gain. Berriki, *Ampère et l'histoire de l'électricité* webgunean ikerlariaren lan argitaratuak, eskuizkribuak eta garaiko beste zientzialari batzuekin trukaturako gutunak bildu ditu Frantziako Zientzia Ikerketarako Zentroak (www.ampere.cnrs.fr).



WWW.FR.ACADEMIC.RU

Edorta Arostegi eta Sara Ibañez Meatzaldea Bizirik

«Petronorrek inguruko biztanleen osasunari eragingo ez diela pentsatzea absurdua da»

2008ko udan sortu zen Meatzaldea Bizirik elkarte ekologista izen bereko eskualdean, Cokearen Aurkako Koordinadoraren segida modura eta bide batez hari izaera legala emateko. Otsailaren 12rako manifestazioa deitu dute Muskizen, Petronorren ate aurrean, findegari bertan egoteko kontzesioa beste 30 urterako luzatu izanagatik protestatzeko. Elkarteko kide Edorta Arostegi eta Sara Ibañezekin jardun dugu horretaz, eta Petronorrez oro har.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

EAJK MADRILEN LORTUTAKO garai-
pen handi gisa aurkeztua izan da:
Ekonomia Jasangarriaren Legearen
alde bozkatzearen truke, lege horre-
tan bertan xedapen bat sartzea
adostu zuten jeltzaleek PSOErekin.
Horri esker, Petronorrek beste 30
urtez segitu ahal izango du Muski-
zen. Garaipena izango da batzuen-
tzat, baina Meatzaldean askoren
haserrea eragin du. Gure berbakide
biena, besteak beste.

Berriro dugu hizpide Muskiz-Petro-
nor binomioa, findegari eremu itsas-
lehortarrean egoteko kontzesioa
luzatuko diotela eta. Horretarako era-
bili den prozedura salatu duzue.

Kontzesioa 2012ko urrian iraungi-
ko da, eta bazirudien ez zegoela
inolako modurik luzatzeko, Espai-
niako Kostalde Legea oso zorrotza
baita horretan: ezin da kontzesioa
luzatu 30 urtez baino gehiago.
Harrigarria zen, beraz, Petronor
findegia handitzen aritzea, teoriar
dena eraisten hasita egon behar
zutenean. Ustez, 2012ko urrian fin-
degia heren bik garbi egon behar



zuten, milioi erdi metro koadro.
Orduan iritsi da emendakin hau,
Ekonomia Jasangarriaren Legeari
ezarri dizkieten 1.000 inguru emen-
dakinetak bat. 899.a, hain zuzen.
Bageneukan susmoa, zerbait pen-
tsatuta izan behar zutela honi luza-
pena emateko nahiz eta legalki ezi-

nezkoa izan, saiatu behar ziren
irtenbidea bilatzen. Baina ezuste
handia izan da nola egin duten.

**Emendakin hori Petronorrentzat pro-
pio egin dela ere salatu duzue.**

Eurek ere hala esan dute publikoki.
Emendakina aurkezteko EAJK



Sara Ibañez: "Ez dakigu zehatz-mehatz zer jaurtitzen duen Petronorrek airera".

emandako argudioetan Petronorrez hitz egiten da zuzenean, findegia orain dagoen lekuan mantentzeko beharraz. Bestalde, Espainiako Estatuan ez dago beste findegirik itsasertzeko eremu publikoan.

Lege kontuak ez dira, ordea, zuen kezka nagusia. Hamaika aldiz salatu duzue Petronorrek kutsadura handia sortzen duela.

Jakin badakigu petrolio findegi guztiak osasunerako kaltegarriak direla. Izan ere, arrisku handiko industria modura daude sailkatuta. Eta hau etxe ondoan daukagu. Izan ere, Euskadin enpresa kutsatzaile asko dago ia etxe barruetaraino sartuta. Begira Lutxanako kasua, Zorrotzakoa.. Ia leihoan daukate fabrika. Horrela garatu da hemen industria. Guk dioguna da ez dugula gura hori gehiago haz dadin, hala ulertu behar da kokearen aurka egin genuen borroka. Gauza bat da instalazio bat aurretik bertan egotea, eta beste gauza bat instalazio hori hedatzea. Eta zabalkunde hori

baimentzea, eta kontzesioa agortzen zaionean berritzea... Garai batean egiten ziren gauza horiek, baina gaur egun ez dago zertan horrela jokatu, badakigu-eta industria arriskutsuak direla. Ez bakarrik istripuengatik, leherketengatik...

"Findegi baten emisioak kutsatzaileak dira ezinbestean, ez dago hori eragotziko duen teknologiarik"

Baita kutsadurarengatik ere. Haste-ko, Petronorren kasuan ez dakigu zehatz-mehatz zer jaurtitzen duten airera. Edozelan, findegi baten emisioak kutsatzaileak dira ezinbestean, ez dago hori eragotziko duen teknologiarik.

Zer kutsadura motaz ari gara?

Azken aldian ohartu gara kutsadurarik arriskutsuena partikula xehek eragindakoa dela. Zenbat eta parti-

kula txikiagoa, orduan eta kaltegarriagoa, gure gorputzean barrurago iristen baita. Eta Eusko Jaurlaritzak dauzkan neurgailuek ez dituzte partikula txikiak atzematen.

Hitz egin duzue horretaz Eusko Jaurlaritzarekin?

Marcos Cucó, Muskizko Ingurumen zinegotzia ari da horretan. Kontua da Jaurlaritzak, une hone-tan, ez daukala bere detekzio-sarea horretarako egokituta. Cucó EHUri eskatu dio azterketa egin dezan, metalek eta partikula xeheek eragindako kutsadura neurtzeko. Baina hori luxu handia da hemen dauden detekzio-sistemekin alderatuta. Iaz eman zioten findegiari behin-betiko Ingurumen Baimena, baldintza batekin: hiru hilabeteko epean frogatu egin behar zuten beren neurgailuak Jaurlaritzaren sarera konektatuta zituela. Geroztik galdetu egin zaie eta inork ez daki ezer, ez dakigu Petronorren emisio-fokuak kutsadura neurgailuei lotuta dauden ala ez. Baina

899. emendakina: legearen barruan, baina ez hainbeste

Espainiako Gobernuaren PP zegoen garaian sortu ziren "omnibus" legeak: urte amaieran onartu behar dira, oso prozedura azkarra dute eta praktikan edozer gauza sar daiteke barruan. Petronorren kontzesioa luzatzea, berbarako. Cristina Alvarezek, Meatzaldea Bizirik-en abokatuak, azaldu digunez, "lege hauek ez dira osoko bilkuran eztabaidatzen; hala, dagokion batzordera emendakin bat iristen da, batzordeko kideek entzun dute emendakin hori aurretik adostuta daukatela alderdi bik, eta irakurri ere ez dute egiten. Aldeko botoa ematen dute eta kito". Dena legearen barrukoa da, zer esanik ez, baina zilegitasunaz luze eztabaidatu daiteke. Izan ere, jurista askok kritikatu du sistema hau.

Petronorri beste 30 urteko egonaldia bermatuko

dion zorioneko 899. emendakina Ekonomia Jasangarriaren Legearen barruan sartu da, baina izatez beste lege biri eragiten die: Kostaldearena eta Hidrokarburuena. "Hau, azken batean, Kostalde Legearen erreforma bat da, baina beste izen batekin", dio Alvarezek.

Alabaina, EAJk eta PSOEk adostu dutena ez da aldaketa txiki bat: Kostalde Legearen espirituaren aurkakoa da erabat. Alvarez ziur dago 899. emendakina Espainiako Konstituzioaren kontrakoa dela, hark espresuki dio-eta itsas eremu publikoa babestu behar dela. Hala ere, arau berria nekez salatu daiteke Auzitegi Konstituzionalen. "Herriarrok oinarritzko eskubideen urraketak salatzeak bakarrik jo dezakegu Konstituzionalera, eta ingurumena ez da oinarritzko eskubidetzat hartzen".

badakigu, gure abokatuak hala adierazi digulako, Petronor ez dagoela behin-betiko Ingurumen Baimena daukaten Europar Batasuneko (EB) enpresen zerrendan. Egoera irregularrean dauden 500 enpresetako bat da. Egia esanda, azaro aldean EBk zigorra ezarri dio Espainiari, Ingurumen Baimen Bateratu guztiak epez kanpo emateagatik. Hori guztia ikusita, partikula xeheen kontrola eskatzea asko eskatzea da. Oinarritzkoena ere ez da-eta betetzen!

Zelan neurtu kutsadurak herriarregan daukan eragin zehatza? Oso ikerketa gutxi egin da horri buruz.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eginda dauka EAEko hilkortasun mapa, eta hori ikus daiteke gure eskualdean, alegia, Enkarterrietan eta Meatzaldean, batez bestekoa baino hilkortasun handiagoa dagoela, portzentaje esanguratsu batean. Hilkortasun tasa orokorra %14 handiagoa da hemen EAEn baino, eta gaitz konkretu batzuen ondoriozkoa %25eraino heltzen da.

Zein gaitz?

Emakumezkoen kasuan, esaterako, arnasbideetako gaixotasunak. Eta bularretako minbiziagatik hilkortasuna ere dezente handiagoa da batez bestekoa baino. Gizonengan, garuneko hodietako gaitzak eta biriketako minbizia. Iazko otsailen Muskiz, Abanto eta Urtuellako udal ordezkariak bildu ziren Jaurla-

ritzako Osasun eta Ingurumen Sailekin. Ikerketa deskriptiboa da, ez dauka arrazoiak esplikatzeke helbururik, baina hala ere Jaurlaritzakoak saiatu ziren hemendik joandakoei datuak esplikatzen. Eta esan zuten hilkortasun altuaren arrazoiak gure ohiturak direla: gehiago erretzen dugula, gure maila sozioekonomikoa baxua dela... eta gizonen kasuan, iraganean Petronorren lan egin izana. Aldi berean, Petronorren kutsadura eta Espainiako Estatuko beste findegi batzuen konparatzen zituen txosten bat aurkeztu zuten, nahiko txosten baldarra. Gainera, lehen esan dugunez, ez dakigu zenbat kutsatzen duen Petronorrek. Nondik atera zituzten datu haiek?

Ez dago, noski, eskualde honetako hilkortasun-tasa handia eta Petronorren jarduna modu zuzenean lotzen dituen ikerketarik.

Munduan egin dira findegien eta osasun arazoaren arteko lotura frogatzen duten azterketak. Dena den, kontrakoa esateak ez du ez hanka ez bururik. 240 hektarea, zazpi aldiz Bilboko Alde Zaharra betetzen duen findegi bat dago hemen, eta gutako batzuk 50 edo 100 metrora bizi gara hortik. Badakigu bentzenoa jaurtitzen dutela, eta toluenoa, eta bestelako partikula batzuk. Sufrea ere eruz dago pilatuta. Horrek inguruko biztanleen osasunari eragingo ez diela pentsatzea ikaragarria da. Ask

erretzen dugula? Tabakismoari buruzko ikerketek ez dute frogatu hemen gehiago erretzen denik. Ikerketak behar ditugu, baina serioak. Hilkortasun-datuak ditugu, baina ez dira aztertu, berbarako, gaixotze-tasak. Abantoko eta Muskizko Udalek eskatu dute egiteko, baina ez dute ezer lortu oraingoan.

Baduzue itxaropenik kontzesioaren luzapena bertan behera gelditzeke?

Printzipioz, bat ere ez. Dena den, ez dakigu ondo zein den honek guztiak egingo duen bidea zuzenbidetara eraman dezakeen. Hori abokatuena da. Guk, momentuz, orain arte bezala jarraituko dugu, eta Petronorrek egiten duen guztia kontrolatzen saiatuko gara. Oso txukun egin behar izango dituzte gauzak, etengabe haiei begira egongo gara eta. ■

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundik
edozein gidabaimenerako*

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solzabalautoeskolak.es

Enplegua

Zer transferentzia egin da EAEra enplegu politikan?

Aurtengo urtarrilaren lehenetik aurrera, Espainiako Gobernuak, EAJrekin burututako negoziaketei esker, enplegu politika aktiboak EAEra eskualdatu ditu. Aldaketa honek polemika eragin du, Gernikako Estatutuan jasota dagoen eta duela 25 urte onartu zenetik gauzatu ez den transferentzia honek Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarra hausten duen ala ez.

DANIEL UDALAITZ

2011. URTEAN SARTZEAZ BAT, Espainiako Gobernuak Gernikako Estatutuan jasotako enplegu politika aktiboak Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatu ditu. Beste dozenaka transferentzia batzuk bezalaxe, hau ere Gernikako Estatutuak jaso eta onartu arren, orain arte Madrilek ez du gauzatu eta, hala, bere lege eta arauak urratu ditu. Estatutu hura duela 25 urte baino gehiago onartu zen. Eta, orain lekualdatu den eskumen honez gain, beste asko daude oraindik transferitzeke.

Enplegu politikak EAEra lekualdatzea ez da besterik gabe “ahaztuta” zeudelako egin; izan ere, Gernikako Estatutuaren arabera, duela 25 urte baino gehiago transferituta beharko bailukete. Rodríguez Zapateroren Gobernuak 2011ko aurrekontuak EAJrekin hitzartu behar izan dituelako gertatu da, bestela ganberak deuseztatu eta hauteskundeak deitu beharko baitzituzten. Ondorioz, EAJ paparra harrotuta dabil eta Lopez lehendakaria jarrera txarrean uzten duen garaipena beregain hartzen du. Orain, transferentzia Lopezek kudeatu beharko du.

Espainiako Gobernuak transferentzia hau burutzea erabaki izanak eztabaida luzea eragin du: Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarra hausten du ala ez? PP eta haren ingurumari mediatikoa transferentziaren aurkakoak dira eta urrats horren



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

INEMeko bulegoak Lanbideren esku geratu dira transferentziaren ondorioz.

bidez Kutxa Bakarra hausten dela adierazi dute behin eta berriro. Beste talde batzuek zalantzan jarri dute hori eta hainbat eragile politiko, ekonomiko, sozial eta akademikok Kutxa hausten ez duela ondorioztatu dute.

Zer dira enplegu politika aktiboak?

Enplegu politika batzuk “aktiboak” dira eta beste batzuk “pasiboak”. Politika aktiboak enplegua sortzea eta bilatzea sustatu eta eragiten dutenak dira. Politika pasiboek aldez langabetuei diruz laguntzen diete.

Enplegu politika aktiboak, funtsean, diru laguntzez, kontratu jakinengatik Gizarte Segurantzaren

sarien beherapenez eta lanbide heziketarako diru laguntzen kudeaketaz arduratzen dira. Politika pasiboak, aldiz, langabezia sariak kudeatzeaz arduratzen direnak dira.

Ibarretxeren Gobernuak enplegu politika aktibo eta pasiboen transferentzia nahi zuen. Eta Espainiako Gobernuak politika aktiboak lekualdatzeko borondate horri eutsi zion (EAEra eta Ceuta eta Melillara ezik, beste erkidego guztietara ordurako lekualdatuta baitzeuden), baina politika pasiboak lekualdatzeari ezezkoa esan zion Gizarte Segurantzaren kudeaketak ordura arte bezala soilik Estatuaren esku egoteari utziko balioke. Hala ere, ez luke

Kutxa Bakarraren printzipioa urratuko, sariak biltzeari soilik eragiten diolako, eta ez sariak ordaintzeari.

Ez da ahaztu behar dagoeneko Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta zenbait udalek enplegu politika aktiboak kudeatzen dituztela, Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetan gertatzen den moduan. Baina orain Estatuak enplegu politika aktiboen zati bat kudeatzeari utziko dio eta kudeaketa EAEn eskutan utziko du, gainerako autonomia erkidegoetan egin bezala.

Enpresa berrientzako hobariak

Enplegua Sustatzeko Planaren arabera, enpresentzako hobariak enplegua haztea dute helburu eta, horretarako, enpresarioek eragingarri berriak jasoko lituzkete kontratazioak sustatzeko. Hobarien berrikuntzetako bat familia erantzukizunak –seme-alaba bat edo gehiago– dituzten langabetuak mugagabe birkontratatzeari saritzea da. Kasu horretan, urteko 1.500 euroko hobaria jasoko du. Eragingarri hori ez du dirutan jasoko, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko sariak murriztuta baizik. Hobari horiek iraunkorrak dira eta enpresarioak beti izango ditu eskura.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, hobariak langabetu gazteak, 45 urtez gorakoak nahiz ahalmen urrikoak kontratatzen dituzten enpresak sarituko dituzte, Espainiako Estatuko gainerako erkidegoetan bezala. Adibidez, enpresek gizarte sarietan %50eko hobaria ezartzeko eskubidea dute ahalmen urriko langileei dagokienez eta, hilerio, kotizazio dokumentuak aurkezten dituztenean, langileak ordaindu behar

Uko egite politiko larria

Hainbat sektorek Espainiako Gobernuaren eta EAEn arteko akordio hori kritikatu dute. “Uko egite politiko larria” dela esanez, “enplegu politika propioak galarazten” baititu. Kritika horren eredu gisa, ELAren jarreraren laburpena jaso dugu. Sindikatu abertzaleak enplegu politika gaitan erabakitzeak ahalmena euskal erakundeen esku dagoela aldarrikatzen du. ELAren ustez, Lan Harremanetarako eta Gizarte Babeserako Euskal Esparruaren barruan dago. Sindikatuaren arabera, akordioak ezarri behar diren enplegu politikei buruz erabakitzeak ahalmena ukatzen dio EAEn. Eusko Jaurlaritza Espainiako Estatuaren erabakitako politiken kudeatzaile eta laguntzaile hutsa izatera mugatzen du. Horrez gain, akordioak Kontzertu Ekonomikoaren irizpideekin bat letorkeen finantzaziorik uko egiten dio eta horrek galera ekonomiko handia dakar. Politika aktiboen eta politika pasiboen kudeaketa bereizten du.

dituen kontingentzia komunetan %50eko beherapena dauka. Hau da, gizarte sari gisa soldata gordinaren %24 ordaindu beharrean, %12 besterik ez du ordaintzen.

Kutxa bakarra ez da hautsiko

Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarra Gizarte Segurantzaren sistemaren errejimen ekonomiko finantzarioaren batasuna da. Nagusiki Estatuak gizarte sariak modu bateratuan eta eskusiboki biltzea eragiten du eta, adituen arabera, Espainiako Konstituzioaren ondorio zuzena da.

Beraz, funtsean, Kutxa Bakarra Gizarte Segurantzaren ondasunen batasun hautsiezina da eta bere kudeaketa soilik Estatuari dagokio.

Adituek diotenez, hobariak Gizarte Segurantzaren ondasunen kontura finantzatzeko balira, eskumen hori lekualdatzeak Kutxa Bakarra hautsiko luke eta, beraz, transferentzia Konstituzioaren aurkakoa izan liteke. Baina enpresentzako hobariak ez dira Gizarte Segurantzaren aurrekontuaren kontura finantzatzen, Estatuaren aurrekontuen kontura baizik. Izan ere, EAJrekin burututako negoziaketetan adostu bezala, Espainiako Gobernuak aurrekontu horietan 500 milioi euro inguruko saila transferentzia horretarako erabiliko du. Ondorioz, beti ere adituen esanetan, Estatuak autonomia erkidegoetara transferentziak egin ditzake Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarraren edo ondasun bateratuen printzipioa urratu gabe. ■

Transferentzia

**Zapateroren Gobernuak
2011ko aurrekontuak
EAJrekin negoziatu behar
izan dituelako gertatu da,
bestela hauteskundeak
deitu beharko baitzituen**



Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Igone Lamarain

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

«Aurrekoaren bidetik dabil Jaurlaritza... Igoal, orain, lotsa barik»

Euskal Herrian Euskarazek manifestazioa deitu du otsailaren 12rako, Donostian. Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe! leloa izango dute ardatz. EHEko kide Igone Lamarainek leloaren bi mailak azpimarratu dizkigu: norbanakoa eta herria.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

ARGIA

Euskaldun eta burujabe: norbanakoa eta herria.

Manifestazioko leloa bi mailatan kokatzen dugu; norbanakoarenean eta herriarenean. Euskaldun bakoitzak egin behar du euskaraz bizitzeko hautua, euskaraz egin eta eragin. Gutako bakoitza izan behar da burujabe esateko “euskaraz nahi dut bizi eta hori da nire hautua”. Ahaztu gabe norbanakook komunitatea osatzen dugula.

Herri mailari dagokionez, asimilazio prozesua egon da herria bera desagerrarazteko, hizkuntza ere desagerraraziz. Asimilazio horri lehentasunez egin behar diogu aurre.

Asimilatu nahi gaituenak baditu bi tresna nagusi: espainiar eta frantziar konstituzioak. Menpeko herria gara eta ezin dugu erabaki zer nolako hizkuntza politika nahi dugun, ezin diogu euskarari lehentasunezko estatusa eman, euskarak prestigioa galdu du eta berreskuratu behar du. Horregatik diogu herriak ere izan behar duela euskalduna eta burujabea. Burujabe, menpeko izaera galtzeko eta bertatik bertara erabaki ahal izateko. Eta herri izango bagara euskalduna izango da, bestela ez gara Euskal Herria izango.

Manifestazioarekin zer lortu nahi duzue?



“Aldarrikatzea ondo dago, baina lehenengo pausoa da euskaraz egitea eta sinestea”.

Bada garaia herri euskalduna eta euskara bizitza politikoaren eta sozialaren erdigunean kokatzeko, eta daukan lehentasuna emateko. Uste dugu mobilizazioa bide hori zabaltzeko lehen urratsa izango dela. Erdigune politiko-sozialean kokatzea diogunean aldaketa sozia-

laz ari gara, euskaraz bizi nahi duen herria eraiki nahi dugu.

Bi konstituzioak aipatu dituzu. Horiek hor dauden bitartean zer egin dezake herritarrek?

Orain arte euskararen aldeko mezua zabaldu dugu, baina konpromisoa-

ren garaia da, euskaraz egin behar da eta bizi egin behar gara euskaraz. Komunitate bat badago eta hori indartzeko norbanakoaren determinazioa inportantea izango da. *Euskalduna naiz eta barro nago* leloa asko gustatzen zait. Euskaraz bizitzeko hamaika oztopo aurkituko ditut, baina nire konpromisoa eta jarduna horretan kokatuko dut. “Ni euskalduna naiz” esan eta erdaraz bizi dena euskalduna izan daiteke? Noraino heldu den asimilazioa: euskaldunak garelako diogu eta, euskaraz jakinda ere, erdaraz bizi gara.

Aldarrikatzea ondo dago, baina lehenengo pausoa da egitea eta sinestea.

Zer iritzi duzue hiru administrazioetako hizkuntza politikez?

Oinarrian dagoena da eremu guztietan hizkuntza nagusiak, legez eta izatez, gaztelania eta frantsesa izan behar direla, bi horiek dira ezagutu beharrekoak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan euskara ezagutzeko eskubidea daukagu, baina ezagutu beharrekoak gaztelania eta frantsesa dira. Oinarria hori dela kontuan hartuta, hiruren hizkuntza politiken helburuak argi daude, edo behintzat badakigu asmoa ez dela euskaraz bizitzea.

Eta Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika?

Ofizialtasun horren atzean elebitasunaren mezua dago, baina mezu horrekin gaztelania bera da indartzen dutena. Jaurlaritzan aldaketa egon zen, sakonean hizkuntza politikan aldaketarik ez da egon, aurrekoaren bide beretik jarraitzen dute. Igoal, orain, gauzak lotsa barik egiten dituzte.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako hizkuntza politikak nola ikusten ditu EHEk?

Inolako estatusik ez dauka euskarak.

Izan, egin eta eragin

2009ko azaroaren 4an bete zituen 30 urte Euskal Herrian Euskarazek. 2010ean zehar *Izan, egin, eragin*. *Euskal Herrian Euskaraz* dokumentala grabatzen aritu ziren, Ion Ansa zuzendaria buru. 2010eko hondarrean aurkeztu zuten ordubeteko dokumentala. Nahiz eta 30 urteko ibilbidea izan oinarri, EHEren asmoa ez da izan bideo historikoa egitea. EHEren sorrera eta bidea kontatu dute kide historikoen eta berriagoen eskutik. Alabaina, atzera baino aurrera begira jarri nahi izan dute eta ikusleari zer pentsa eman. Besteak beste, EHEko kide Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Kontxi Erro, Kar-



Dokumentalaren pasarte bat

mele Aierbe, Gabi Basañez eta bide-lagun izan dituzten euskalgintzako hainbatek haien gogoetak eta sentipenak agerian jarri dituzte lanean.

Dokumentala argia.com-en ikus daiteke.

Euskararen Erakunde Publikoa sortua da.

Euskalgintzako eragile askok oso ondo baloratu zuten sortu zenean, baina kontuan hartu behar da Parisen sortutako erakundea dela, eta argi erakutsi dute ez dutela inolako urratsik ematen euskara sustatzearen alde. Hainbat akordio dute herriko etxeekin, baina ez dugu ikusten urrats sendorik. Aldarrikapena zegoen, eta hori baretzeko EEP sortu dute, baina ez aldarrikapen horien atzean dauden helburuak lortzeko.

Frantziak behin eta berriz esaten du zein den Errepublikaren hizkuntza nagusia.

Elebitasunaren kontzeptuak bogan jarraitzen du.

Euskalgintza ari da elebitasunaren mezuari aurre egiten. Inportantea da. Elebitasuna aukeratzeko eskubidearekin lotuta saltzen digute, bere garaian PSEk *Euskara askatasunean* aurkeztu zuen. Baina bi hizkuntzak ezagutzen ditugunok aukeratu ahal dugu, besteak ez dauka zer aukera-

tu. Elebitasunaren mezu hori gainditu behar dugu, ez du bermatzen euskaraz bizitzea.

Zein alor zehatzetan ari zarete orain lanean?

Euskaraz bizitzeko dinamikak eragin nahian gabilta. Baditugu lurgune euskaldunak, eta besteak beste UEMArekin urratsak eman nahi ditugu. Herri asko UEMAtik atera dituzte judizialki, beste batzuetan alderdiak erabaki du ateratzea. UEMArekin batera lan asko daukagu egiteko, tresna inportantea da lurgune horietan. EHE ere horrelako tokietan beharrezkoa da, nahiz eta euskaldunak izan.

Euskaraz bizitzeko dinamikak sortzeko toki inportanteak dira eskolak eta udalak. Udalek asko daukate egiteko, eta eragiteko, euren burua euskalduntzetik hasita. Eskolek euskalduntzen ez duten tokietan hori salatu beharko dugu, euskalduntzen duten tokietan lagundu eta euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu; adibidez, Lanbide Heziketan. ■

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Kelsen eta Hirukideri Bai Euskarari Sariak

ZIURTAGIRIA ELKARTEAK Bai Euskarari Sariak eman ditu bigarren aldiz. Refractarios Kelsen enpresa eta Tolosako Hirukide ikastetxea saritu dituzte langunean euskara txertatzeko ahaleginagatik. Aurten, duela gutxira arte Kontseiluko zuzendari izan den Xabier Mendigureni Bai Euskarari Laguna saria eman diote.

Euskaldunak Euskaraz ETBn

INTERNETEN sinadura bilketa egiten ari da Euskaldunak Euskaraz ETBn

izeneko ekimena. Euskal Telebistan ohitura da euskaraz dakiten herritarrei adierazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskatzea. Ekimena abian jarri dutenen ustez, ohitura horrek euskara kaltetzen du, euskara erdaldunentzat ikusezin bihurtzen baita. ETBko agintari eta langileei galdegin zaie, izatekotan ere, adierazpenak euskaraz egiteko eskatzea.

Mintzapraktika aztergai

AZTIKER soziolinguistika klusterrak mintzapraktika ekimena ikertu du bere eraginkortasuna neurtu nahian. %95ak adierazi du euskara maila hobetu duela.

BAHEA

Karmen Irizar Topaguneko lehendakariak Berrian esanak otsailaren 26ko Euskara Elkarteek Mugimenduaren Kongresua dela-eta: “Joan den urtarrilean hasitako prozesu bat amaitu eta beste bat hasi nahi dugu kongresuarekin. Azkeneko urteetan, bai euskara elkarteek bai bestelako eragileek esan izan digute Topagunak jauzi bat egin behar duela, zerbitzugintzatik eta tokian tokiko mailatik ahots artikulatu bat izatera pasatzeko jauzi bat. Bestetik, zuzendaritzan geundenok konturatuta ginen euskara elkarteak sortzen hasi zirenean soziolinguistikari buruzko oinarri sendo bat zegoela, oinarri horietatik sortu zirela euskara elkarte asko, baina transmisioan formazio teorikoa apur bat albo batera utzita geneukala. Eta horren beharra ere sumatzen genuen. Beraz, gaur egungo egoerara egokitzea eta teoria mailan gure burua janztea izango dira kongresuaren helburuak”.

Martin Rezolak Tiraka.comen esanak: “Bere blogaren [Josu Erkoreka] aurkezpenean Etxepareren aipu famatua jarri arren, Erkoreka euskaldun jantzi askoren jardun diglosikoaren eredu garbia da. Euskaraz idazten ditu euskarari berari buruzkoak eta mendian eginiko ibilalditxoaren kronika kostunbristak, eta gainerako gai serioetarako gaztelaniaz baliatzen da.

Anasagastirena aipatuko dute askok, baina niri Anasagastirena bost axola zait, ni benetan kezkatzen nauena Erkorekarena da. Gizon argia, jantzia, errespetuz jarduten duena... (Espainiako Parlamentuan errebelazio-politikariaren saria eman zioten, oker ez banago); IVApeko zuzendari izana, gainera, eta euskaraz primeran dakiena”.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Davos: bankak menderatzen jarraitzen du

Davoseko Munduko Ekonomia Foroa amaitu da. Han bildu dira bankari, enpresari eta multinazional handiak, bai eta politiko garrantzitsuak ere. Elurak isolaturik eta polizia lerro izugarriak babestuta, gaur egungo egoera ekonomikoa aztertu eta “despistaturik” dabilzane abisua eman zien. Bi ondorio atera litezke boteretsuen klub horretatik. Bat, ekonomiak menderatzen duela politika. Bankariak, multinazionalak eta enpresari handiak dira politikoak menderatzen dituztenak: Sarkozy, Merkel eta beste hainbat. Eta bi, inoizko krisi ekonomiko finantzario handiena eragiteagatik beraien aurpegia ezkutatu behar luketenean –merkatuak, bankak eta inbertitzaile handiek–, horietatik dira paparra harrotuz klase politikoa menderatzen jarraitu nahi dutenak, euren balantze eta poltsikoen onurarako.

Sarkozyk eta Merkelek, lotsaz, finantza sektorearen nolabaiteko erregulazioa proposatu dute, eta horren aurrean banka –BBVA eta Santander horien artean– ofentsibara pasa da. Ez dago erregulaziorik. Europako eta Ipar Amerikako gobernuak egin behar dutena da –esan du bankak– zor subiranoaren arazoak konpondu, “Europarentzat arrisku potentzial handiena, baina ez bakarrik Europarentzat, baita mundu osoarentzat ere”. Lotsagabea izan behar da: diru publikoarekin historian izan den erreskate esku-zabalena jaso duen banka, zer eta, berak sortu duen zorraren arazoetara arreta desbideratzen saiatu da. Sektore finantzarioaren erregulartasun ezaren ondorio izan dira “kasinoko” kultura, zabor hipotekak, espekulazioa... Horiek eragin dute planetako krisirik handiena. Gobernuak, kikilduta, eraso horren mende jarri dira beste behin. Horregatik ez dira ausartzen finantza eragiketei tasa bat jartzera eta banka eta fortuna handientzako zerga berezia sortzera. Amore eman dute, aldiz, inposatzen zaizkien erreforma antisozialen aurrean. Bankak menderatzen jarraitzen du!

Juan Mari Arregi

Publikoan emandako urratsik ausartena

EZKER ABERTZALEAK badu alderdi berria eta orain ikusi beharko da Espainiako agintaritzak maila desberdinek nola erantzuten duten. Bilbon egindako agerpenak ez du inor hotz utzi eta ezker abertzalearen azken bi urteetako bidean hartutako erabaki sendo eta ausartenetakoa da. Gero eta gehiago ari da bistaratzen ezker abertzalearen prozesu honek ez duela atzera bueltarik.

Hala ere, posibleena da Espainiako Gobernuak ez onartzea, Barne Ministerioak hogei egun ditu horretarako, baina denak adierazten du ez duela onartuko eta, fiskaltzaren bidez, Auzitegi Gorenaren esku utziko duela. Alderdi berriaren estatutuei soilik jaramon eginda, inongo zalantza barik legeztatu beharko luke, hauek gaur egun Espainian dauden dozenaka alderdiren gisakoak direlako eta indarkeriari dagokionez, horietako gehienak baino zehatzagoak. Azkenean, ezker abertzaleak berriaz ere argi adierazi du helburu politikoak lortzeko bortxaren erabilera baztertzeko duela, ETArek bortxa espreski eta argi aipatuz.

Espainiako Auzitegi Gorenaren ibilbidea ikusita, seguruena da honek alderdi berria ez legeztatzea. Orduan, helegitea jarri ondoren, azken aukera Auzitegi Konstituzionala litzateke. Eta hemen zalantza gehiago dago, halako estatutu batzuekin eta halako egoera politikoarekin, oso fin ibili beharko litzatekeelako ezker abertzalearen legeztatze eskaera atzera botatzeko. Fin, batez ere hurrengo helegiteak Estrasburgo Auzitegira joko lukeelako eta honek Konstituzionalaren ebazpena atzera botatzea ez delako batere itxurosoa Espainiarrentzat. Estrasburgoko Auzitegiak ere, dena den, jurista aurrerazale



askoren eta euskal herritar gehienek ilusioa zapuztu zuen duela bi urte Espainiako Alderdien Legea ontzat eman zuenean.

Baina gakoaren iltzea, denok dakigun moduan, ez da juridikoa, politikoa baizik, bai lehen eta bai orain. ETA jardunean zelarik ere, Iniciativa Internacjonalistak nahikoa izan zuen biolentzia modu orokor batean gaitzestea Europako hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Baina ETArek historiako su-eten indartsuenean izatea eta ezker abertzaleak biolentziaren –ETArena barne– arbuiaze historikoa egitea, ez da nahiko alderdi berria legeztatze eta etengabeko baldintzak jartzeko beste alderdiak bezala aritu ahal izateko: berrogeialdia pasa behar duela, denbora luzean arbuia behar duela ETA, harengatik bereizi behar dela edo argiki gaitzetsi... Iniciatiba Internacjonalistarekin nola jokatu zuen ikusita, hala ere, logikoena litzateke Konstituzionalak

Estrategia berriaren muinean, ezkerreko indar metaketa soberanista dago eta, Nafarroan argi ikusi den bezala, horrek panorama politikoa aldatuko du

oraingoan ezker abertzalearen alderdi berria legeztatzea.

LEGE KONTUAK aparte utzita, alderdi berriak aldaketa handiak ekarriko ditu ezker abertzalearen mundura oro har. Estrategia berriaren muinean, ezkerreko indar metaketa soberanista dago eta, Nafarroan argi ikusi den bezala, horrek panorama politikoa aldatuko du. Alderdi berriak

hor izango du erronka garrantzitsuenak, sektore horretako alderdi nagusiak izanik, mugimendu zabal eta malgu eratzeko ardura berea delako. Apustu batzuk behar bezala ez ateratzea –2011ko Nabai– ezkerreko burujabezaileen indar metaketarako arazo izan daitezke, baina ez lukete gaindiezinak izan behar, epe labur eta ertainera begira espazio hori benetan osatu nahi badute. NaBai-rekin ikusten ari den gisan, dena den, soberanismoaren bide hori zeharo malkartsua da.

Egindako barne egituraketaren iragarpenean ez dago ezustekorik, alderdi klasikoek dutena da. Baina ezker abertzalearen azken 30 urteetako antolaketari begira, horrek bakarrik aldaketa handiak ekarriko ditu.

Egitura moldeak garrantzitsuak dira, baina gero egunerokoan nola jarduten den da inportanteena. Alde horretatik, alderdi gehienek arriskua da beren oskolean gertatzea, ordezkatzeko dituzten herritarrek eta alderdien artean gero eta distantzia handiagoa sortuz. Hori saihesteko modu bakarra dago, areago izaera eraldatzailea duten alderdietan, gizarte erakunde eta eragileekin eskuz esku ibiltzea, elkarren begirunean eta elkar elikatzen. Indar metaketa eta aldaketa sozial handiak hala bakarrik lortzen dira.

PELLO ZUBIRIA

Nork ordainduta mozorrotu zen ekologistaz polizia?

Bederatzi urtez aritu zen Mark Kennedy Britainia Handiko militante ekologista sutsuenen artean poliziarentzako eta konpainia pribatuentzako zakur lanean, hanka sartze ttiki batek agerian utzi duen arte. Zergatik eta zertarako? Antza denez, ingurumenaren aldeko ekintzak burutzen dituzten taldeak terrorista arriskutsutzat dauzkate.

IAZKO APIRILEAN 114 EKINTZAILERI eraso zieten polizia ingelesek Ratcliffe-on-Soar herriko eskolan, bertako zentral termikoa asaltatzeko prestakuntzetan ari zirela. Egoitza publikoan baimenik gabe sartzeagatik auziperatu zituzten hoge; sei espetxean egon dira geroztik ikatzeko zentrala matxuratu nahi zutelakoan... harik eta duela hamabost egun demonstratu zen arte tartean polizia infiltratu bat zebilela. Defentsak argudiatu zuen polizia aritu zela legez kontrako azioa burutu zedin xaxaka.

Mark Kennedyren izena madarikatuko dute ingurumenari eta ekologiarik lotutako gatazketan murgildurik dabilzan ekintzaileek. Mendebalde aberatseko gatazken berri nahi duenak, berriz, analisiak osatzeko behar diren hari muturrak aurkituko ditu sasi-ekologista ustelaren istorioan.

Honela laburbildu zuen albistea *Daily Telegraph*ek: “Mark Kennedy eko-zomorroia agerian geratzeak azaldu du infiltratuta ari diren polizien kontrolik eza, eta susmoak piztu ditu aktibisten artean”.

Kennedy 30 urte zituela eta hiri-buruko polizian ari, National Public Order Intelligence Unit (NPOIU) sailak begiz jo zuen ezkutuko lanetarako. NPOIU ei da Erresuma Batuko polizia sekretuaren barruan “ekintzaile berdeak” pertsegitzeko lanean ari dena. Kennedyk txima luzeak utzi

zituen, Stone abizen berria eman zioten, infiltraziorako prestaketa lanak egin eta 2003an azaldu zen Yorkshire eskualdeko kanpaleku batean, ekin-tzan murgiltzeko irrikaz.

Komunikabideek literatura franko sortu dute *pajaro*aren kontura. Beti lanerako pronto zegoela, beste inor baino ausartago jokatzeko zuela, oso eskuzabala zela bere diruarekin, horrelako azioetarako primeran datorren furgoneta handi batean mugitzen zela... eta hori guztia gutxi bazen, gizon ederra zela. Hitz batez esanda, *alfa ar* bat zela: sekulako arrakasta emakumeekin.

Britainia Handiko ekintza askotan hartu omen zuen parte, tartean *Glenegles*-en 2005ean G8aren bilkura zela-eta antolatutakoetan. Europan barrena ere ibilia zen, Alemanian, Islandian, Irlandan, Holandan, Espainian... Horrelako agentearekin pagotxa zeukaten polizia buruek, informazio iturri aparta.

2009ko apirilean gertatu zen aipatu dugun *Ratcliffe-on-Soar*rekoa, zientia bat militante indargabetu zituztela zentral elektriko bat sabotatzera zihoazenean. Kennedy izan zen ihes egin zutenetako bat, gero inguruko pub batean burkide burumakurrei birra bana pagatu ziena. Handik laster Kennedyk polizia lana utzi omen zuen, ez ordea espioitza, *freelance* moduan segitu baitzuen sala-

Britainia Handian ekintza zuzenetan ari diren mugimenduen informazio eta analisiak zabaltzen dituen *SchNews* guneak dauka Interneten Mark “Stone” Kennedyren argazkietako bat. Bigarrena *Indymedia*ren Erresuma Batuko edizioan ipini dute, han berrikitan agerian geratu diren hiru polizia mozorrotuen albistean. Kennedy ageri da bankuen kontrako ekintza batean burdinezko ateari kateaturik, poliziaz inguratutik, horietako bat filmatzen ari zaiola. Ingalaterrako talde ezkertiar, anarkista, antifaxista eta ekologiko asko aztoratu ditu infiltrazioaren berri jakiteak. Aukera politiko bareagotan dabilzan iritzi emaille askok ere adierazi du kezka. Ez dute konprenitzen nola erabili daitezkeen konraintsurgentziako estrategiak horrelako taldeen kontra. Operaziootan xahutu diren dirutetz galdetu dute beste batzuek. Informazioa nork eta zertarako erabiltzen duen ere bai.

tari. *Daily Mailek* publikatu du E.ON energi multinazionalak pagatuta aritu zela.

Urrian erori zen, mozoloa legez, benetako pasaportea agerian laga zuenean eta orduan berarekin zebilen neskalagunak ikusi. Hondoa jo omen zuen, egindakoak aitortu eta ekologisten artean mozorrotutako *cop* gehiagoren berri eman. Penitentzia gisa, lehen salduko kideen aldeko lekuko izatea eskaini zuen.


Gero Ingalaterratik ezkutatu zen. Agidanean, Estatu Batuetan dabil.

Paranoiak eta manipulazioak

Polizia infiltratua hurbiletik ezagutu zuen Emily Apple ekintzaileak bere egonezina azaldu du *The Guardian* egunkariari igorri idatzi batean: “Badakigu gure mugimenduak behin eta berriro zulatzen dituztela; kontua ez da ea gertatzen ote den, kontua da nor den salataria”.

Appleren iritzian, horrelako zomorroiak polizia buruei informazioa emateaz gain mugimendua eze-gonkortzea bilatzen dute. Hasteko, filtrazioengatik paranoiak kalte handiak eragiten dituelako taldeetan. Baina hauen estrategia eta taktiketan ere eragin dezakete.

Kasu bat aipatu du Emily Applek. Duela urte pare bat Bradford hirian ekintza zuzeneko taldeak ari omen ziren eztabaidan, zer egin han



English Defence League ultrasenak antolatutako bilera hondatuko. Militante askok hiriaren erdigunetan egin nahi zuten indar erakustaldia, baina Kennedyk proposatu zuen lege kontrako ekintza nabarmenagoak egitea, autoak hondatzea. “Kennedyk primerako modua aurkitu zuen azioari dagokionez bera ausart azaltzeko, eta aldi berean jendea erdigunetik urrun atxikitzeko”. Justu poliziak nahi zuena, antza.

Emily Applek beste batzuekin www.fitwatch.org webgunea animatzen du, ekintzaileei aholkuak eta informazioak eskainiz poliziaren taktika eta estrategiez. *Fitwatch*en azaldu berri dute beste infiltratu baten izena, Lynn Watson, haren istorioa konta-

tuz. “Militanteok segitzen badugu kalean indartzen, poliziak zulatu eta nahastu nahiko ditugu talderik nabarmenak, nola edo hala. Hala ere, Kennedy aferak erakutsi du ekintzaileen elkartasun sarea sendoa dela. Kalteak nozitu dituztenak zaindu eta laguntzeko gai izan gara: horretan eusten badiogu, indartsu izango gara aurrerantzean ere”.

Bestelako lezio gehiago badu polizia mozorrotuarenak. Madrilgo *El País*ek Londresean duen berriemaile Walter Oppenheimer-ek azpimarratu du Mark Kennedyk informazioa pasatzen zion taldea, balizko estremistei jarraipena egiten diena, Association of Chiefs of Police Officers (ACPO) elkartearen dela. “Itxurak arren, ACPO erakunde pribatua da,

Inglaterra, Gales eta Ipar Irlandako polizietako ofizialek osatua; hori dela eta informazio askatasuna babesten duten legeak ez dio eragiten, eta barne dokumentuak plazaratzeko obligaziorik ez dauka”. Alegia, munduan armadak bezala polizi lanak ere pribatizatu direla herritarren oharkabea.

Red Pepper aldizkari ezkertiarren blogetakok batean, albisteaz luze idatzi du Tilly Gifford ekintzaileak. Hegazkintzako industriari eta aireportuen handitzeari aurre egin nahi dien *Plane Stupid* mugimenduaren sustatzaileetakoa da.

Gifford salatu du berriketan BBC katean polizia buru batek aitortu duela lasai ederrean ingurumenaren aldeko ekintza taldeetan infiltratuta daudela, ez bakarrik poliziak, baita segurtasun konpainia pribatuak ere. Hain zuzen, informazioa ateratzeaz gain, talde horiek izorratzeko.

Plane Stupid gertuagotik kontrolatzeko Gifford berari bi gizon joan zitzaizkion iazko martxoan, Aberdeeneko aireportua itxi nahian zebiltzanean, dirua eskainiz. Amarruaz ohartuta, Gifford eta beste kideek lortu zuten bi tipoak filmatu eta haien irudiak zabaltzea, baina inork ez zien sekula argitu zein entzako ari ziren informazio bila.

“Ikerketa osoa behar dugu, ez politikoei eta ez poliziei egina, epaile baten aurrean burutua baizik. Ohar gaitzen polizien eta finantza interes handien arteko loturez: erasotzen ditugun negozioek ingurumenarentzako dauzkaten ondorioak badi-rela haiekin irabazten dituzten diru pilak bezain izugarriak”. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Josemari Velez de Mendizabal

III. Errepublika

Errealitateak normalean fikzioaren lorpenik handienak gaindi ditzakeelakoan gaudenok irudimen-ariketak burutzeari ekiten diogu sarritan, geure ametsetan noraino hel gaitezkeen frogatu nahian. Eta, behintzat, gogoretak paperean idazten ditugunok jakin badakigu ikaragarritzko salto kualitatiboak egiteko gai garela, batere esfortzurik gabe. Bada, errealitateak gu adimentsuok baino askoz indar handiagoa duela kontuan edukitzen badugu, atera kontua zein nolako ustekabeak eraman ditzakegun eguneko edozein unetan.

Urteari ekin nion Errege Magoen zerbitzariari eskutitz bat eskuataratuz, haiek baitira nik miresten ditudan pertsonaiaik iaioenetakoak, normalean geure ilusioei erantzun zuzena eskaini dietelako. A! Eta zer esanik ez, munduko errege guztien artean errespetatzen ditudan bakarrak dira. Kartoizko gainerako guztiak –bai, besteak beste gure Europa zaharrean oraindik erresumaren irudi anakronikoari eusten dioten estatu buru horiek– errefusatzeko baitituz nire indar osoz. Bada, magoei eskatu nien aurten III. Errepublikaren bidea errazten hastea. Eta eskabidea ume-bihotzarekin egin nien, garbi baitaukat pertsonaia mitologiko horiek ez dituztela haurrak desagainatzen.

Aurten 80 urte betetzen dira espainiar II. Errepublika sortu zela. Ia-ia bost urtez iraun zuen, Francoren diktadurak erail baitzuen txikitxo, 1939ko apirilaren lehenan. Espainiako orain arteko Errepublikak oso gazte hil dira, aurrena ere (1873-1874) bere bigarren urtebetetzea egin gabe desagerrarazi baitzuten, Borboiak berrezartzeko. Eta Borboiek jarraitzen dute espainiar monarkiaren oinarrian, oraingo aldiaren ere tronoan indarrez jarrita, Franco jeneralaren 1969ko erabakia dela medio.

Badakit errepublikek ez dutela, berez, estatuaren kudeaketa politiko egokia bermatzen. Begira, bestela, zer gertatu zaion –adibide denboran hurbila jartzeagatik– tunisiar errepublikari. Baina mahgrebiar lurralde horretako gizartearen erreboltoak hankaz gora jarri du lehendakari ustel



DANI BLANCO

baten ibilbide politikoa eta une hauetan aro berri baten atarian daude tunisiarrak, aurrerantzean gizarteak berak hautatutako beste lider batek gidatuko duelarik estatuaren lema.

Monarkiak iraganeko erakundetzat hartzen ditut eta ezin dut ulertu egun nazio-batasunaren sinbolotzat daukatenean arrazonamendua. Ene ustez, demokrazia eta monarkia bi kontzeptu kontrajarriak ditugu. Lehenak boterea hiritar guztien baitan jartzen badu, monarkiak ezereztatu egiten du haren ahalmena. Francoren “*Caudillo de España por la gracia de Dios*” harengatik ez bada, zeren izenean eskaini behar zaie Borboiei estatuaren gaineko buruzagitza eternala?

Espainian III. Errepublika ezartzeak amets hurreneko lantegia dirudi. Espainiar alderdi politikoek ez bide daukate beren lehentasunen artean balizko errepublikaren berrezarpena. Areago, nik esango nuke espainiar populazioaren gehiengo batek ez dakiela monarkiaz gain beste



Alderdi politikoak –baita, noski, sortzez errepublikazale direnak ere– ez daude joko itxuraz arriskutsuetan sartzeko prest, planteamendu berritzaileak ez bailieke botorik erakarriko.


Eta horrela, hiritarrek hautatu ez dituzten pertsonaia gero eta xelebreagoen esku geratzen da estatu-buruzagitza



gobernu motaren aukera dagoenik. Eta, beraz, “zoriontsu” bizi dira beren ezjakintasunean. Alderdi politikoak –baita, noski, sortzez errepublikazale direnak ere– ez daude joko itxuraz arriskutsuetan sartzeko prest, planteamendu berritzaileak ez bailieke botorik erakarriko. Eta horrela, hiritarrek hautatu ez dituzten pertsonaia gero eta xelebreagoen esku geratzen da estatu-buruzagitza. Ia magoek entzuten didaten oraingoan ere. Errealitateak fikzioa gaindituko luke. ■

ASTE HONETAKO

zozketak



Laia Erreategia

Afaria 2 lagunentzat

Arkolla auzoa, 33
Hondarribia GIPUZKOA

www.laiaerreategia.com

1




Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandia

2 liburu opari

Pamiela Argitaletxea
Iruñea NAFARROA

www.pamiela.com

3



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

4



Ziztadak

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2262. Argia)

URBANO

• Joxan Apaolaza Bernedo (Oñartzun)

MOROAK

• Ana M. Zubiarremereria Olañeta (Eibar)
• Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)

NAIROBITARRA

• Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
• Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)

KUTXAGUNEA

• Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
• Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
• Bernardo Azpillaga Ariztimuño (Errezil)
• Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

ZAIN

• Urumea Euskaltegia (Donostia)
• Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
• Unai Bergaetxe Leibar (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



Edukiz jantziko zaituen aldizkaria

Oparitu **argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da